



**Ohorezko Aipamena jaso du Ttipi-Ttapak** **24**

Rikardo Arregi Kazetaritza Saria-ren Ohorezko Aipamena **Ttipi-Ttapa**-rentzat izan da, «*tokiko komunikabidea sortzen aitzindari izan eta zailtasunei aitzin egiteagatik*».



**Mikel Irazoki urruti ailegatu da musikan** **03**

Ttikitatik datorkio musikarako afizioa Mikel Irazoki beratarrari. Eta urteetan egin duen lanari esker, urruti ailegatu da. Egun, Miguel Boseren zuzendari musikala da.

2009ko uztailaren 9a • XXIX. urtea  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

## 04 Nafarroa eta Iparraldean mugarriz mugarri

276 MUGARRIETAN BARNA IBILALDIA  
JASO DUTE LIBURU BATEAN







muebles  
**ORDOKI**  
altzariak

Estilo ugariko  
mobleak

Larunbat arratsaldetan itxia

ERAKUSKETA: Bittiria 26  
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27  
Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA



  
ttipi-ttapa

DAGOENKO  
**542**  
LAGUNEK  
egin dute  
gure alde

*eskerrik asko!*

ttipi-ttapa fundazioak  
zure laguntza behar du



Zure laguntza eskertzeko,  
motxila eder hau izanen  
duzu opari.

geure bezeroek  
aukeratutako  
proiektua **can**

Eska ezazu TTIPI-TTAPAren proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutzaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra 2009ko abenduaren 30a baino lehen. Proiektu zenbakia: 15.996

**DATUAK...**

- **Ttikitatik datorkio musikarako afizioa Mikel Irazoki beratarrari. 5 urterekin atabala jotzen hasi zen, gero akordeoia hartu zuen, eta baxua ondotik. ADN, M-ak eta Bizkar Hezurra taldeetan ibilitakoa da, baita Anje Duhalde, Gari eta Juan Carlos Perezekin ere.**
- **Izen haundiko musikariek in dabil azken aldiari: Ana Torroja, Luz Casal, David Bisbal... Egun, Miguel Boseren zuzendari musikala da.**
- **Dedikazio haundia eskatzen duen lana da, baina bistan da gustukoa duela, barru-barrutik bizi baitu musika.**



**Mikel IRAZOKI** *Berako musikaria*

ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

# «Momenturo gauza berriak bilatu behar dira eta lan lotua eta intentsoa da»

**ttipi-ttapa**

**Nola ailegatu zara artista ezagun hauekin lan egitera?**

Beti mundu honetan sartua egon naiz, eta poliki poliki izan da. Ez nion bat batean utzi Euskal Herrian lan egiteari, baina 90. hamarkadan lan batzuk egiten hasi nintzen Madrilén. Denborarekin gero eta gehiago hasi nintzen eta orain gutti aritzen naiz hemen. Miguelengana, berriz, 21 Japonesas taldearen bitartez ailegatu nintzen. Talde honen *manager*-ak Madrilén zuen bulegoa, eta horrek berak Ana Torroja eta Miguel Boseren ere eramaten du. Euren hasi eta horrela sartu nintzen. Hasieran baxua jotzen eta 2004az geroztik Miguelén zuzendari musikala naiz. **M-ak eta Bizkar Hezurra taldeetan jotzetik Miguel Boserekin lan egitera salto haundia izan zen?**

Badago aldaketa, bai, baina pausoz pausoz eginez gero, ez da hainbestekoa. Garrantzitsuena motibazioa da. Lan bat onartzean, berdin dio musika hori gustatu ala ez.

**Zein da zure lana?**

Miguelék kantak aukeratzen ditu eta erreperitorioa osatzen du, eta musika-

**«Etorkizuna ziurtasunik gabea da. Mundu honetan proiektu bat bukatuz gero, ez da jakiten zer etorriko den. Momentuz, ez zait deus ere faltatu eta kontent nago»**

ri zein tratamendu eman nahi dion erraten dit niri. Hortik aitzinera, lanean hasten naiz: piano bat ala bi, gitarra bat ala bi... zenbat behar diren erabakitzen dut. Ondotik, moldaketak egiten eta musikari bakoitzak jo behar duena erabakitzen hasten naiz. Zuzenekoetan joaten diren moldaketetaz ere ni arduratzen naiz.

**Ordu aunitzeko lana da?**

Bai, aunitz. Entseguak hasi aitzinetik, bi hilabeteko lana izaten dut nik bakarrik; gero hilabete eta erdi musikariek eta ondotik jotzen hasten gara. Guztira, hiru-lau hilabete bira hasi aitzinetik. Nire lana ez da estudiokoa bakarrik, batez ere, biran egiten dut lan. Momenturo gauza berriak bilatu behar dira eta lan lotua eta intentsoa da. Oporrak ere gutti izaten ditut, baina ahal

duan guzietan honat etortzen naiz, hurrekin egoteko.

**Gustuko lana duzu?**

Bai, dudarik gabe. Bitarteko onekin lan egiten da, pertsona aldetik eta teknika aldetik, eta horrek ere erraztasunak ematen ditu. Musikari dena ematen diotenekin lan egiteko aukera eduki dut eta ongi moldatu naiz. Lan egiterakoan askatasuna ere ematen didate.

**Zein proiektu dituzu momentu honetan esku artean?**

Miguel Boserekin eta Alex Ubagorekin ari naiz. Berez, urtarrilean bukatzekoa zen Miguelen bira baina arrakasta haundia izan du eta kontzertu gehiago emanen ditugu. Otsailean Alex Ubagorekin hasteko deitu zidaten eta hortaz, orain biekin ari naiz.

**Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Urtero bezala, ziurtasunik gabea. Mundu honetan proiektu bat bukatuz gero, ez da jakiten zer etorriko den. Buruan hainbat gauza izaten dira baina... Gainera, krisiaren eraginez, kontzertu guttiago ematen dira orain. Niri momentuz, ez zait deus ere faltatu, eta kontent nago. Bertze bi urterako behinik behin Miguelekin lana izanen dut.





ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

16 etapatan banatu dute 206 kilometroko ibilbidea. Horietao aunitz eskualdean barna pasatzen dira.

‘TRAVESIA DE LOS MUGARRIS’ LIBURUA EGIN DUTE VIGORREK ETA SANZEK

# Bidasoa eta Belagua arteko 276 mugarriak lotzen dituen ibilaldia

**Endarlatsako zubi zaharretik hurbil, Bidasoa ibaiaren eskuinaldean. Hantxe dago Nafarroa eta Iparraldearen arteko lehenbiziko mugarria, eta Intzola lepoan, Hiru Erregeen Mahaitik hurbil, azkena, 276. mugarria. Pixka bat lehenago, berriz, urtero Hiru Behien Zerga egiten den San Martin Harrian, 262.a, 1858. urtea idatzia duela. Urte horretan paratu baitzuten. Bi datu horiek izan ziren, hain zuzen, Iñaki Vigor eta Carlos Sanzen artean jakinmina sortu zutenak: «Zenbat mugarri daude Nafarroa eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoaren artean? Zer zegoen 1858. urtearen aitzinetik?». Eta galdera horiek bultzatuta Nafarroa eta Iparraldearen arteko mugarriak jasotzen dituen *Travesía de los mugarri*s liburua idatzi dute. Hortxe bilduak daude 206 kilometroko tartean dauden 276 mugarriak, 16 etapatan banatuak. Historiako pasarte andana ere jaso dituzte liburuan, hala nola, 1856ko Baionako Ituna, mugarrien kokapena zehaztu zuena.**

## ttipi-ttapa

Historian hainbatetan aldatu izan dira Nafarroaren mugak. X. eta XIII. mendeen artean, erraterako, Aragoi, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurak bere baitan hartzen zituen Nafarroak. XII. mendearen akabera aldera, baita Nafarroa Behereakoak ere. Baina Espainia eta Frantziaren konkisten ondotik, banatua gelditu zen. 1530etik 1856 urtera arte Nafarroako Pirinioetako mugak finkatzen ibili ziren bi estatuak eta 1856an Baionako Ituna sinatu zutenean, zehaztuak gelditu ziren. Bi urte beranduago paratu zituzten mugarriak. Ordukoak dira *Travesía de los mugarri*s liburuan ageri diren harrimugak. Lehenagotik Elizondoko Ituna ere sinatu zuten, 1785ean, gerora adostu zuten itunaren oinarri izan zena.

Mugarriak duela 150 paratu baziren ere, Iñaki Vigor eta Carlos Sanzena izan



UTZITAKO ARGAZKIA

**Iñaki Vigor Orreaga eta Orbaizeta aldean dagoen 200. mugarrarian. Bentartea lepoan dago.**



UTZITAKO ARGAZKIA

**Carlos Sanz Kintoatik hurbil dagoen 141. mugarrarian. Iztebergi aldean dago.**

da muga barna mendi ibilaldia proposatu duen lehen lana, nahiz eta Carlos Bardeci bilbotarrak ia mugari guziak bisituak zituen eta haren laguntza «ezinbertzekoa» izan duten. «Gure herrialdea hobeki ezagutzeko aukera eskaintzen du liburuak, bi estatuek euskal lurraldea zergatik banatu zuten planteatzen du, duela 150 urte euskaldunen iritzia kontuan hartu gabe zehaztu zen muga ezagutzeko aukera». Horrela azaldu digu Vigorek.

#### 47 TONTOR ETA 31 HERRI

2007ko martxo bukaeran hasi eta urte bereko irailean amaitu zuten 16 etapatan banatu duten zeharkaldia. 206,2 kilometroko luzera du eta 47 gailur eta 31 herri zapaltzen ditu: Hego Euskal Herriko 11 eta Ipar Euskal Herriko 20. Tartean eskualdekoak: Azkaine, Sara, Senpere, Bera, Etxalar, Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubiko lurrak.

Historiako pasarteez gain, bertzelako informazio osagarriak ere ageri dira liburuan: megalitoak, kontrabandisten kontuak, bunkerrak... «Gure ustez, mendizaletasuna ez da ibiltzea bakarrik, alderdi kulturalak ezagutzeko ere balio dezake». Jakingarri interesgarriak ere bildu dituzte. Horien artean, 36. mugariaren ondoren dagoen lau metro luzeko harrizko mahaiari buruz kontatu dutena. Mahai gainean *Mahain harria* dago idatzia, eta mahai erdia Berakoa da eta bertze erdia Sarakoa. Toki horretan, oraindik ere Bera, Etxalar eta Biriatu, Urruña, Azkaine eta Sararen artean mugalarreen hitzarmena sinatzen dute, bortz urtean behin. Herri hauetako lurrak, belagiak eta ura aprobetxatzeko eskubidea ematen diote elkarri, baita oihaneke suteetan elkar laguntzeko bitartekoak paratu ere. Mahai horren inguruan, bertze bi mugari daude, eta horietako batek, Urdazubiko Monasterioaren mugak markatzen omen zituen



UTZITAKO ARGAZKIA

**86. mugari hau Baztan eta Bidarraiaren artean dago. Aitzineko mugarrria Aritzakunen dago eta 86. hau, berriz, Trutxilenborda deituriko parajearen. Alkaxuri da gibelean ageri den mendia.**

monasterioak indar handia zuen garaian.

Aipatzekoa, halaber, 1856ko Itunean, Iparlako mendilerroa bere horretan muga «natural» gisa hartu zutela ere, eta gailur osoan mugari bakarria paratu zutela, 90. harria. Hurrengo ia lpezin dago, zortzi kilometrora.

Kintoan muga zuzena markatu zutela ere azpimarratu dute liburuan. «Afrrikako herrialde aunitzetan mugak lerro zuzenarekin finkatu ziren. Gisako zerbait egin zuten espainiarrek eta frantziarrek Euskal Herriko hainbat tokitan, bereziki Kintoan. Baztango Zagua gainetik Iztebergiraino marra zuzena egin zuten, eta hemendik Lindusera bertze bat. Bizati hauetan ez ziren irizpide orografikoak hartu kontuan, marraztu zutenen interesak baidak». Kintoa Baztan eta Erro bailarena da, baina urteko kuota ordainduz, baigorriaren esku gelditzen dira larreak.

#### HIRU DESIO

Liburua kalean, hiru desio eskatu ditu Vi-

gorrek: «bat, egunen batean Espainia eta Frantziak barkamena eska dezatela euskal lurraldea bitan banatzeagatik. Bi, oraindik indarrean dirauen 1856ko Mugen Ituna baliogabetu dezatela. Eta hiru, mugaren bi aldetako herritarrek ados jarri eta laguntzak eska ditzatela Europar Mugarrien Ibilbidea garbitu eta seinalezatzeko. Esanahi historikoaz gain, turistak erakartzeko balio dezakeela uste dut».

Mugarriak «behartuta» paratutakoak izanik, zergatik mantendu behar diren galde lezake norbaitek. Hona hemen Vigorek erantzuna: «mantendu behar direla uste dut, egunen batean behartuta ezarritako muga desagertu egingen delako. Egun horretan 276 mugariak inposatutako banaketaren lekuko historikoak izanen dira». Bere garaian, kontrabandistek baliabide ekonomikoak eskuratzeko baliatu zuten muga, mendizaleek gutti bisituak diren inguru zoragarriak ezagutzeko aprobetxatzea da, azken batean, egileek proposatu dutena.



Lege Gordailua: NA-1324/85  
ISSN: 1578-4673  
Frankeo Itundua: 34/79  
TIRADA: 6.000

## ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12  
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58  
Faxa: (+34) 948 63 54 57  
www.ttipi.net  
info@ttipi.net

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.

**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Gurutze Pikabea.

**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Mainer Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Aitor Arotzena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Irtaxe Kontsumitzaileen Elkarte...

**Imprimategia:** Gertu.

**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leizeta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senperoko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

### 2009ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	36 €
Espainia	36 €
Ipar Euskal Herria	54 €
Europa	54 €
Amerika eta Australia	120 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leizeta	30 €



Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euskarabidearen laguntza jaso du



## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Elizondoko zahar-etxea

Hurrengo lerroetan azken bi asteetan Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte Zahar-Etxearen gaiarekin bizituko azaltzen saiatuko naiz. Alde batetik, pena horrelako historia duen etxe bat esku pribatuetan gelditzen delako eta bertze alde batetik, amorruta juntaren eta batez ere Udaleko kideen jorkaerarengatik; informazioa gordetzeaz gain, langileei eta hauen ordezkariari irri egin digutelako.

Bertze behin ere Nafarroa Bairen bi aurpegiak ikusi ditugu, alde batetik, Nafarroako parlamentuan zahar-etxeen publikotasuna defendatu duten bitartean, Elizondon zahar-etxea pribatizatu dute beraiek juntan egonik, gai honen inguruko inolako aholkurik entzun gabe eta gainera, Baztanen gai honen inguruko inolako eztabaida publikorik zabaldu gabe iritzi ezberdinak aditzeko. Beraien planak zituzten eta horiek betetzera joan dira inori deus erran gabe.

Sutsuki defendatu dute pribatizazio hau, erranez OPUS-DEItik hurbil dagoen enpresa horren gestioak konponduko dituela arazokak. Zorrek omen ditu zahar-etxeak, eta Idea-Inovacion enpresak jun-

taren iritzi, bertz urteetan zulo hori estaliko omen du enpresa horrek. Gure galdera, ordea, honako hau da; urte horietan urtetan irabaziak atera behar badiu enpresa horrek eta gainera zulo ekonomiko estali, nola lortuko du? Soldatak jaitziz, zerbitzuen kalitatea merketuz eta txartuz? Prezioak igoz?

Hagitz gai larria iruditzen zaigu Zahar-Etxeko juntak 150 urteetako historia duen etxe hau eta batez ere, baztandarrentzat beti eman duen zerbitzu hori pribatizatzea, langileen eta batez ere agureen egoerak arduratu egiten gaituelako.

Hau horrela izanik, batez ere larria iruditzen zaiguna da, konbenioa sinatu gabe zegoenean eta langileen eskakizunei erantzun ere egiten ez zuen bitartean, gordeka eta Baztanen inork deus jakin gabe negoziaketa hau egitea. Ez gaitzen engaina, gertaera hauetaz inork ez zekien deus, ez langileek, ez herrietako alkaiteek eta oro har Baztango inork. Dena isilpean eta gordeka egin dute zerbait ezkutatu nahi balute bezala eta dena lotua eta ongi lotua zegoenean informatu dituzte langileen ordezkariak, bitartean hitzik ere.

Gauzak horrela, ikusirik junta osatzen dutenak langileetaz eta

baztandarretaz irri egiten ari direla denen (eragile sozial, herrietako, alderdi politiko, langile eta noski langile komiteko kide guztiena) ardua da hau salatzea, onartezinak direlako horrelako jokaerak eta batez ere Baztango etorkizunak arduratu egiten gaituelako.

**Koldo Saenz  
LAB  
sindikatuak**

### Nafarroako Gobernua eta euskara

Nafarroako Gobernuak, hau da, UPNK, CDNk eta, antza, baita PSNk ere, beste amarru berri bat asmatu dute euskararen normalizazioa oztopatzeko. Kasu honetan, ebazpen bat Erreniega mendiko hezagailu batzuk kentzeko, zehazkiago esanda, Maria irratia, Radio Euskadi, Euskadi irratia eta Euskalerrria irratia.

Dagoeneko hamaika mila trikimailu eta zerrikeria sortu dituzte azken hamarkada hauetan, euskarari oinak geldiarazteko; kopurua ia konta ezin ahala da.

Bitxiena eta xebleberena da, gizarteari sine-tsarazi nahi diotela demokrotak, tolerantak, irekiak, modernoak, pluralak, dibertsitate zale-

ak eta abar direla, baina euskararen gaia pixka bat ulertzen dugunok badakigu guztiz alde-rantzizkoak direla, alegia, beraiek euskararekiko direna hauxe da, gaitzok, maltzurak, zitalak, bihotz txarrekoak, pertsona eskasak, euskara gorrotatzaileak eta bat eta beste. Botere handiagoga dute, baina arrazoi gehiago ez.

Dagoeneko ez dezatela pentsa irensten ditugula beren gezurrak, iruzurrak, engainuak eta amarruak.

Jendilaje honekin argi eta garbi dago lanean eta euskararen aldeko borroka garbian jarraitu beharko dugula, ez beraiek bezala, eta, batez ere, euskararen gaia arrera atera nahi badugu, uste dut ez dugula beste erremediorik izanen, botoen bidez gailentzea baino. Gora euskarazko komunikabideak!

**Xanti Begiristain  
Iruñea**

### OHARRA

Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea. Irakurleak Mintzo tartean argitaratzeko helbide hauetara idatzi behar da: *Ttipi-Ttapa, Andutzeta 12, 31760 Etxalar* edo *info@ttipi.net*.

# BALNEARIO ELGORRIAGA

*Elgorriaga Bainuerxea* natur ingurimen paregabea dago kokatuta. Gure bisitariek ur mineralen iturhurua gozatu ahal izango dute, hotelean ostatatu eta gure jateko karra dastatu.

Elgorriaga Bainuerxea familiako bazkariak ospatzeko, naturaren erdian lasaitasun asteburua pasatzeko edota tratamendu batekin arazoen hartzeko toki bikaina da.

Etorri orain gure Oliboterapia Urzante tratamendua goatzera, peeling eta olioarekin emandako masajeak, eta udaldi honetan larru dizitratua izanen duzu.

*"Zure gorputza eta gogoaren arteko harmonia eta erabateko lasaitasuna aurkituko dituzu gure masaje orientalekin".*

*"Hobetu zure gorpuzkera hidroterapiaren dohainei esker".*

*"Zaindu zure gorputz eta larruazala gure kabina zerbitzuekin".*



**ELGORRIAGA**  
BALNEARIO · BAINUERXEA



# Iturenngo bestak



Eider leopaindegia eta eztekin  
Ondaregia 900-1100 / 1100-1930  
Larunegia 900-1400  
Kontuak kalea, 6 - ITTUNA - 948 451 338



Herriko Ostaturia  
ITUREN  
Landa etxea  
2 izateko  
1 logelarekin  
ONGI PASA  
BESTAK  
Herriko Plazan  
948 451 430



AITZINEA  
ERRETEGIA  
ITUREN  
Iturenngo bestaketik abiatuta bakarra arde  
estehimendua arde egunero irekia  
Ongi pasa herriko bestak!



INDEGIA  
ZURGINDEGIA  
Atsek - Tarinak - Eskalilerak - Sukalde mobleak  
TEILATUKO ZURA - LEIHOAK - KONTRALEIHOAK  
ZURGIN LANAK OROKORREAN  
T. 948 451 906  
M. 689 531 012  
carpi.mindegia@yahoo.es  
AURTITZ



Iturenngo Udalak  
besta zoriontsuak  
opa dizkizue  
iturendar eta  
bisitari guztiei

## uztailak 17 ORTZIRALA

**11:00-13:00** HAUR JOKUAK; txirrista, piloten etxea, giza-tiragoma... **16:00-18:00** HAUR JOKUAK; txirrista, piloten etxea, giza-tiragoma... **18:00** Txokolate jatea herriko plazan **20:00** TXUPINAZOA **ondotik** kalejira trikitilari eta txistulariekin **20:15** Iturenngo dantzarien saioa plazan **00:30-04:00** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin



## uztailak 18 LARUNBATA

**10:00** kalejira trikitilari eta txistulariekin **12:30** PILOTA PARTIDUAK herriko gazteen artean **17:00** MUS txapelketa **20:00-22:00** dantzaldia AGERRALDE akordeolariarekin **00:30-04:00** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin



## uztailak 19 IGANDEA

**10:00** kalejira trikitilari eta txistulariekin **11:00** MEZA NAGUSIA **13:00** PILOTA PARTIDUAK: Banaka CAMPO-BEREAU; Binaka MADARIAGA III - MADARIAGA I/ MITXELENA - MADARIAGA II **18:00** HERRI KIROLAK **20:00-22:00** dantzaldia KOLDO akordeolariarekin **00:30-04:00** dantzaldia KOLDO akordeolariarekin



## uztailak 20 ASTELEHENA

**10:00** kalejira trikitilari eta txistulariekin **10:30** PLATER TI-RAKETA herritarrentzat. **14:30** HERRI BAZKARIA. Irazu eta Zubeldia bertsolariekin. **Ondoren** kalejira MIRIAN eta AR-KAITZ-en eskutik. **20:00-22:00** dantzaldia AGERRALDE akordeolariarekin **00:30-04:00** dantzaldia AGERRALDE akordeolariarekin **Ondoren** Besten akitzea





# Elgorriagako bestak



uztailak **23** ORTZEGUNA

**20:00** TXUPINAZOA **Ondotik** Zopak **Gauzez** dantzaldia MODESTO akordeolariarekin

uztailak **24** ORTZILA

**09:00** Dianak **10:00** Haurrendako puzgarriak eta jokuak **17:00** Mus txapelketa **17:00** Ur ekintzak **21:00** Amuarraín herri-merienda **Ondotik** Rock Kontzertuak

uztailak **25** LARUNBATA  
Santiago eguna

**08:00** Aurorak **09:00** Dianak **11:00** Meza Nagusia **Ondotik** Lun-txa **15:00** Gorriti **Ondotik** Tortilla lehiaketa **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin

uztailak **26** IGANDEA

**09:00** Dianak **11:00** Toka Txapelketa **14:00** Zikiro Jatea



**MIGUEL ETXEBERRIA**  
zurgindegia

zurgin lanak orokorrean

Tel: 948 430 310 - Mugikorra: 608 677 997  
ELGORRIAGA

Elgorriagako Udala



*Besta zorientsuak  
opa dizkizuegu!!*



# ARIZKUN

## BAZTAN

Epe laburrean,  
2 eta 3 logelako etxebizitzak eraikiko dira  
134.500€tik hasita BEZ barne

# IRAIZOTZ

## ULTZAMA

Iraizotzen etxebizitza libreak eginen dira 3 logela,  
trasteleku eta garaje-plazarekin.  
Lehen kalitateko materialak.  
Beheko solairuak lorategi pribatuarekin

# ITUREN

## MALERREKA

Iturenen, etxebizitza libreak eta VPO-ak  
laister eraikitzeakoak, garaje eta lokalekin.



Promociones  
**Lindutx Baztan, S.L.**





## FAMILIA BAKARREKO ETXEAK LASTER ERAIKITZEN HASTEKOAK

- Partzela pribatuak  
500m<sup>2</sup>tik hasita
- 2 Etxebizitza aukeran



ISO 9001

BUREAU VERITAS  
Certification



Baztan Berri, 6 behea  
31700 Elizondo  
Tel. 948 580 344  
info@lindutx.com  
[www.lindutx.com](http://www.lindutx.com)

Hargibel Eraikuntzak, S.L.



ongi pasa bestak

Ostatu • Jatetxea

# LEKUBERRIA

Bar • Restaurante

Santiago, 43 behea  
ELIZONDO  
Tel. 948 26 65




**ESTIBALIZ**  
**ESTETIKA ZENTRUA**

DIODO LIGHT SHEER  
LASER BIDEZKO DEPLAZIOA

PROFESIONAL SANTIABOEN  
EGINDAKO TRATAMENDUAK

% 100KO ETIKAZIA  
SAIO GUTTIAN

XARROK, 14 • ELIZONDO • TEL: 948 511 310



Psuztura, 9 Behe Elizondo  
T 948 540 288  
www.idealozentzia.com  
info@idealozentzia.com

**idola ordea**  
ileapaindegia

ileapaindegia

burua garbitzeko aukak  
shiatzu masai sistemarekin

ongi pasa bestak



**Sansiñena**  
**garagea**

zerbitzu ofiziala

- Tailer mekanikoa
- Kotxeen salmenta eta konponketa
- Engraseak

Agria, New Holland traktoreak

Erabilitako nekazal tresneria

zerbitzu ofiziala **AGRIA**

**NEW HOLLAND**  
AGRICULTURE

Santiago, 37 - Tfnoa-Faxa: 948 580 406  
ELIZONDO

# Elizondoko bestak

«Eguerdian ezin duten langileengan pentsatuta Salbearen ondotik bigarren txupinazoa izanen da»



Xabi TORRES  
Elizondoko alkatea

Lehenbiziko urtea du Xabi Torresek Elizondoko alkate karguan, eta modu berezian biziko ditu bestak: *“Gauza inplikatzeari eta mundu honetan sartzea da. Ez dut erranen guziz sartua nagoenik, aunitz dut ikasteko eta aunitz ikasten ari naiz, eta konplexuago ikusten dira aferak urruneko perspektibarekin ikusten direnean baino. Baina lan egiteko gogoarekin eta esfortzuekin, ikasi eta aitzinera eramaten dira gauzak”*. Bestetako diru kontuak ere, gan den urteko sarrerak ikusita pentsatu dituzte. *“Sosa lortzeko bide berriak erabiliko genituela erabakia genuen, eta ahalik eta diru gutien erabiliz ahalik eta programazio zabalena egiten saiatu gara, eta hori bederen lortu dugu, gan den urtean baino gauza gehiago daudelako eta gan den urtean 85.000 euro gastatu ziren bestetan eta aurten 50.000 euro inguru. Prebisioak hanpatzen dira, baina ez noski 85.000 arte... aunitz jokatu dugu, afari, bazkari edo lo egitearen truke egindako ekitaldiekin”*. Aurtengo egitarauan aldaketak somatzen dira, Torresen erranetan, *“koadrilak sartu direlako antolaketan. Orain arte alkateak halako programa ofizial bat egiten zuen eta bertze aldeetik gazteek egitarau alternatibo bat edo egiten zen, beraiendako ez zegoelako nahiko jarduera. Aurten besta komisioa sortu da. Horretarako bilera bat egin zen gazte koadrilekin eta 20 koadrila edo gehiago hurbildu ziren*







Erreka jautsiera da Xabi Torres-i gehien gustatzen zaion ekitaldia. Aurten gainera, kukaña ere izanen da Txokoto inguruan.

*eta komisioan parte hartzeko 6-7 prest azaldu ziren, Herriko Etxea eta txozna komisioarekin batera". Honela, inguruko herrietan duten antolaketa modura gehiago hurbildu nahi izan dutela dio Elizondoko alkateak: "Danbolin nagusie edo danbolin etxekoandrea izaten dira bestak antolatzen dituztenak eta ardura hori eskuz aldatzen da, eta hori ere Elizondon egitea pentsatu dugu, lan horiek denenak direla ulertarazteko modua da. Aurten hasi gara, baina besten antolaketa, Herriko Etxearen gain gero eta guttiago izatea espero dugu".*

Orain arte, beharbada egitarauan agertzen ez ziren, baina egin egiten ziren ekitaldiak sartu dira programan. Torresek aipatu digunez, "gazteen gauzak ageri dira, helduenak, aitatxi-amatxienak, gazteek eginazateagatik gure aitatxi-amatxietaz gogoratzen garelako eta haiendako gauzak ere badirelako, aspalditik egiten diren tradizio batzuk aldatu ditugu, herria egitearen alde".

## Bi txupinazo

Egitarauko aldaketa batzuk aipatzearen, Santio bestek lehen aldiz kartela izanen dute eta horretarako babeslea ere lortu nahi dute. Alkateak eskerrak eman nahi izan dizkio Juan Angel Perotxenari, "programa berak antolatu baitu eta kartela ere berak egin delako. Heldu den urtetik aitzinera lehiaketa egiteko asmoa dugu". Mendiarte Graffiti topaketa ere egin nahi dute. "Hasieran Alemaniatik-eta etortzekoak ziren, baina babeslea segurtatua ez genuenez, arriskutsuegia iruditzen zitzaigun, baina Bilbotik, Zaragozatik, Iruñetik... etorriko dira. Aurtengoa lehen edizioa da, baina gehiago ere egin nahi ditugu, beharbada bertze herrietara ere eramanez".

Elizondokoak dira gure inguruan bi txupinazo izanen dituzten besta baka-rrak, eta Torresen ustez "gauza berria da eta egokia da, ortziral eguerdian

Argazkiak: Ondikol

*ezin baitu jende guziak bestetako ekitaldi garrantzitsu honetara agertu. Langileengan pentsatuz arratsean ere izanen da, Salbearen ondotik, eta bertze txupinazo elegante izanen da, herria egiteko egokia hau ere".*

Herria egiteko bertze modua besta auzotara hurbiltzea da eta alde horretatik, zenbait lan egin dituzte: "Duela bi urteko gazteen programan hasiziren Berroko elkartearen gosaria egiten eta fanfarrearekin etxez etxe joaten. Musika eramaten genuen eta auzotarrek eskertu ziguten, besten seinale bat bezala eta gauza polita da hori ere! Aurten hobekixiago antolatuko dugu eta jendeak lagundu nahi du. Beartzundik barna xirulari bearnesak ibiliko dira eta arras polita izaten da!".

Egitarau zabal horretan Xabi Torres-i gehien gustatzen zaiona "erreka jautsiera da. Berron gosaldia, fanfarrearekin itzulua, bazkaria Iturri-Ederren egiten da eta koadrila bakoitzak bere errekaontziak prest izaten ditu. Beroarekin eta jendeak izaten duen bestondoarekin, erreka frexkagarri ederra da! Aurten kukaña ere izanen da Txokoton eta Pirrinek zopak eskainiko ditu".



- Olioak  
- Akuarelak  
- Grabatuak  
- Eskulturak

# AUZA

GALERIA - EXPOSICION

Ongi pasa bestak!!!  
Felices Fiestas!!!

Tfnak: 948 580 046 - 609 222 181

Berekoetxe Getzia, 2 (elizaren ondoan) ELIZONDO

Ongi pasa Bestak!!

# Iris

LOREDENDA - Elizondo

Naturala: Jaime Urrutia, 19 - Tfnoa: 948 58 10 53  
Artifiziala: Jaime Urrutia, 21 - Tfnoa: 948 58 10 53

KARRIKA ostalua

ongi pasa bestak

ELIZONDO - Jaime Urrutia, 11  
948581275

Uztailaren 23an  
Baztan zopak  
txartelak salgai  
Kortarixarren

ongi pasa bestak!

www.kortarixa.es  
626 532 452

bar restaurante

# TXOKOTO

ostalua jatetxea

Tfnoa: 948 580 349  
Braulio Irujo, 25

ELIZONDO

Urrekin egina  
Tartak eta pastelak  
Etxean egindako izozkia

# Malkorra

Gozotegia

Besta onak pasal!

Santiago, 15 Tel: 948 580 061 ELIZONDO

Jaimerena  
ileapaindegia

GIZONEZKOAK  
EMAKUMEZKOAK

ESTETIKA  
SOLARIUM-A

# Jaimerena

Tel. 948 581 273 - Santiago, 18 - beheak - ELIZONDO



## LA BAZTANESA S.A



ELIZONDO  
Tfnoa/Faxa: 948 580 129

IRUÑA  
Tfnoa: 948 222 223  
autobuses@labaztanesa.com

## AXULAR

Fotokopiak, faxa, enkuademazioak, plastikazioak,  
aldizkariak, prentsa, tabakoa eta  
bestu liburuak ekartzen dira enkarguz.



Oni pasa bestak!  
Kopiatuak, faxak, enkuademazioak,  
plastikazioak, aldizkariak, prentsa,  
tabakoa eta bestu liburuak ekartzen  
dira enkarguz.

Santiago • ELIZONDO • Tfnoa: 948 581 507



## ARKUPE

Gozotegia • Txokolategia

Txokolategia, urrazkoa,  
almendrazkoa, beltza eta xuria,  
Tabletak, bonbolak, trufak,  
Txokolate konfitatua.  
Tartak, etxeko izozkiak, pastelak  
pastak, miniaturak, bolloak...

KAFETEGIA

Elizondo - Tel. 948 452 393  
Iruña - Tel. 948 452 021 - 948 580 059  
info@arkupegozotegia.com  
www.arkupegozotegia.com

## BC BALLARENA CONSTRUCCIONES, S.L.

EKIBERIZTEN ERABUNTZA ETA ERREFORMAK  
ITURGINTZA, ELEKTIZITATEA, KALEFARZIOA, AIRE-EGONITUA



Santiago, 60 behea • ELIZONDO • ballarena@teletel.es  
Tel./Faxa: 948 452 395 • Mug. 647 688 988 • 647 688 982

carniceria harategia

## Esarte

ELIZONDO 948 580 128  
DONEZTEBE 948 456 132



WWW.AZKEN-MUGA.NET  
TLFN 948581034  
BAZTAN

ongi pasa bestak!



LABORRA  
LARUMBE

arkitektoak

ongi pasa bestak!

Tel: 948 580 122  
Faxa: 948 581 888  
Santiago, 54-1-ELIZONDO

info@laborra.com



ongi pasa bestak!



FOTO MENA ELIZONDO  
www.fotomena.com  
santiago aalga 40 T. 948 580 155

Santiago, 43 • ELIZONDO  
Tel. 948 581 442

## EGUZKI-ALDE

ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA

Oscirilak 20:00-22:30

Larunbatak 13:00-15:00 / 20:00-22:30

Igandak 13:00-15:00 / 20:00-22:30

Eskaera minimoa: 12,00 €

(E) Geko giharrak etxera eramateagatik

ONGI PASA BESTAK!

## GOIZALDE

ostatua

Jaime Urrutia, 8 • ELIZONDO • Tel. 948 581334



# Elizondoko bestak

uztailak **24** ORTZIRALA  
bezpera

**11:00** MENDIARTE. Grafiti erakusketa. **12:00** TXUPINAZOA, Baztan zopak eta konpartsarekin herriari itzulia. Herritar batek suziria botako du. **14:00** TORTILLA LEHIAKETA Merkatuzelaian. Talde bakoitzeko tortilla bat aurkeztuko da. **16:00** OLINPIADAK Baztan Berriko berdegunean: Boneta, Zartain eta Aitzur jaurtiketa. **16:00** Haurrendako MARGOALDIE Herriko plazan. **17:30** BOLEIBOL txapelketa irekia Laxoa plazan. **19:00** KALEJIRA Txozna komisioak antolatua. **19:30** KARRIKADANTZA Herriko etxetik elizara. **20:00** SALBEA Elizondoko Abesbatza, Isabel Lakarren zuzendaritzapean. Organoan Claudio Zudaire eta Recreo de Elizondo musika bandaren laguntza izanen duelarik. **20:30** Atsaldeko TXUPINAZOA eta TXISTORRADA. **22:00** BRINDISA eta AFARIA txozna gunean. Txozna komisioak antolatua. **22:30** KANTALDIA eta DANTZALDIA Ziga Margolariaren Plazan. **23:00** KONTZERTUAK Plazan. Mallacan (talde Zaragozra), Amets Ilunak (Elizondoko Rock taldea), DJ AK., Mestizo Ska Gaua. Olimpiada, Boleibol eta Tortilla txapelketako SARI BANATZEAK.



Argazkiak: Ondikol

uztailak **25** LARUNBATA  
Santiago eguna

**09:30** Argi soinuak **11:30** Meza Nagusia **12:00** Herritarren elkartzea eta zenbait herrietako erraldioen harrera elizan. **12:20** KARRIKADANTZA Elizatik plazara **12:30** Mutildantzak **13:00** Herriari eskeinitako luntxa **17:00** 16 urte artekoendako JOKUAK gazteek eskeiniak Baztan Berri eta Erlategin. Adinaren arabera, ume eta gurasoendako jokuak... **18:00** Elizondoko TXAPELA PILOTA partiden finala trinketen. **18:00** Eskalada eta Rappela elizan (16 urte-tik goitikoendako) **18:30** Erraldioen ibilaldia Baztaberritik abiatuta: **20:00** Dantzaldia GARRAXI taldearekin **21:00** Dantza herrikoaiak Ziga Plazan. **22:00** Mutildantzak **23:00** Su artifizialak **24:00** Migel Angel y el Mariatxi de la cantina **01:15** Dantzaldia Garraxi taldearekin



**ADATSA**  
ileapaindegia  
Braulio Iriarte Iuzapena, 58 • ELIZONDO  
Tel.: 948.452.467

**Clour** ileapaindegia  
Telefonoa: 948 500 630  
Onduegiak:  
Auzoriketa  
Onduegiak  
9:00 - 18:00  
Larunegia  
8:00 - 14:00  
Auzoriketa  
Bedia

**arteka**  
arkitektura arquitektura  
C/INGURU PASEA 3232ARI  
Tel. 948500610 Plaza. Dr. Baldo 1-1. A  
Fax 948452434 31700. Elizondo Baztan  
info@artekabaztan.com Nafarroa

**BAZTAN**  
Ferreteria  
- pintura - Arztegiako gisakak  
- Kristalak - Trennerie - Oporiak...  
Tel: 948 500 423 Santiago, 79 - Industriadua **ELIZONDO**

**Gonzalez anaiak**  
aroztegi metalikoa  
Burdina eta aluminioa  
F. Joakin Iriarte, 5  
Telefonoa: 948 500 337  
**ELIZONDO**

**Kris** ileapaindegia  
Tel: 948 58 00 25  
C/ Gaitzaudi Kalea, 14 - ELIZONDO

egoi bardot obregozo arkitektoa  
679649769 elizondo - braulio iriarte 33, 1ºD - 31700  
948250371 iuñea - irabeko monastegia 62, 4ºC - 31011

**ELISA TAXIA**  
677 399 302 (8 PLAZA + GIDARIA)


**ESKIZ**  
INFORMATIKA ZERBITZUAK  
EKIPOEN SALMENTA-KONPONKETAK  
WEB ORRIAK - IKASTAROAK  
www.eskiz.es - info@eskiz.es  
Tel. 948 981 822 • Erlategi, 4 • ELIZONDO



Belardenda eta Dietetika

Natura Saxeu

- Sendabelarrak
- Produktu naturalak
- Kosmetika naturala
- Naturopatia kontsulta
- Pisu-terapia
- Zapata naturalak
- Liburuak



Santiago, 47  
☎ 948 580 203  
ELIZONDO

**Besta  
onak  
pasa!!**

Ongi pasa bestak!

libreria **nafarpress**  
liburudenda



Jaime Urrutia, 43 • 948 580 902 • ELIZONDO

**Albaitaritza**



Tfnoa.: 948 580 980 [www.albaitaritza.com](http://www.albaitaritza.com)



**Albaitack**

[www.albaitack.com](http://www.albaitack.com) Tfnoa.: 948 506 169

Zaldi eta zaldi-galantzarako produktusak **Materiaia**

**Esada** **Biloto eta aratzeontako esada** **Papia**

Xaboi eta desinfektatzaileak **Ongarri mineralak**

Albaitari zerbitzua **ALBAIKIDE**



[www.albaikide.com](http://www.albaikide.com)

Tfnoa.: 902 169 169

**Allianz**

Maite Petirena agentea

Ongi pasa bestak

Saskaitz plaza • ELIZONDO • 948 452 394



**RUIZ DE LARRINAGA S.L.**

Zurgintegia  
Sukaldeak  
Aluminioak  
PVC

ongi pasa bestak!

Ordoki Ind. • ARIZKUN  
rdelarrinaga@hotmail.com  
637 59 39 96 - 948 45 33 87

**MAÑONEA** agentzia  
aholkularitza eta aseguruak

Estrella aseguruak

Braulio Iriarte, 9 • ELIZONDO  
Tel: 948 581 132

**elicetxe**  
suministros electricos

material elektrikoak  
*ongi pasa bestak!*

Tel: 948 581 281 • Faxa: 948 452 397  
Santiago, 83 (Industrialdea) • ELIZONDO

**Baztan**  
Panifikadora

Ederi banatzailea:  
Coca-cola, San Miguel  
Insalus, Gurutzeta sagardoa  
Ardo berexiak...

Berekoetxea Gotzain. 3 • ELIZONDO  
Tfnoa: 948 580 305 - 948 580 138

**ALMACO BAZTAN**

komunitateko behar dutan guztia • burdindakia • laneko arropa • eraikitzearako materiala • makineriaren abakina • ekonomiak • astufak • zeramika • parket

GRUP **GAITTIA**



Errepide nagusia, Elizondo

Tel. 948 580 104 Fax. 948 581 857

**MENDI**  
ostatua

ongi pasa bestak!

Santiago, 25  
Tfnoa: 948 580 313  
ELIZONDO



# Elizondoko bestak

uztailak **26** IGANDEA  
aitatxi eta amatxien eguna

**09:30** Argi soinuak **11:00** Erraldoi eta Buruhaundien Ibilaldia. **12:00** PUZGARRIAK eta KARS Lanbide Eskolako zelaian. **13:00** AITATXI eta AMATXIE GUZIENDAKO bazkarie. **16:00** PUZGARRIAK eta KARS Lanbide Eskolako zelaian. **17:00** BEHI KAKA (Xorroxin Irratiak antolatua). **18:30** HERRI KIROL jaialdia Plazan. (Nafarroako 3. mailako aizkolari txapelketako finala). **20:30** JAIONE OLAZABALEkin kantaldia plazan. **21:00** DANTZA HERRIKOIAK Ziga Plazan. **22:00** MUTILDANTZAK. **00:00** Dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.



Argazkiak: Ondikol

uztailak **27** ASTELEHENA  
haurren eguna

**09:30** Argi soinuak, BEARNEKOEN eskutik. **10:30** Berroko Elkartean HERRITARRENDAKO GOSARIE. **Ondotik** Fanfarre MI-Farekin Berrotik barna itzulia. **11:00** ERRALDOI eta BURUHAUNDIEN Ibilaldia. **11:00-14:00** HAURRENDAKO PUZGARRIAK igerilekuan (pizinarako sarrera denendako musutruk izanen da 11:00etatik 14:00etara). **14:30** KUADRILLEN BAZKARIE Iturri Ederran (kuadrila bakoitzak berea eraman dezala) txarangak girotua. **16:30** KUKUBEL antzerkia eliza aldean. **ondotik** BONBA JAPONESAK (Eliza kanpokoaldean). **16:30** BEARNEKOEN SOINUAK Bearzundik barna. **18:00** ERREKA JEITSIERA, Txokotoko putzuan KUKAÑA ere egonen da. **19:00** BAZTAN ZOPAK Txokotoko zubien, Pirrimtenek eskainia. **20:30** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin **21:00** DANTZA HERRIKOIAK Ziga Plazan. **22:00** MUTIL DANTZAK. **00:00** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin **04:00** KARAOKEA Plazan.

Argazkiak: Ondikol



ONGI PASA BESTAK!

**IPARLA** kirolak

Mondrago materialak  
KAROL OBRADORAK, TRAVINAK

Santiago, 51 • ELIZONDO  
948 580 585

**Dia % SUPER-BAZTAN**

Zerba orotarako opa delikuzagel!

**Dia % Santiago, 60 • ELIZONDO • Tel. 948 580 453**

INSTALACIONES  
**SASKAITZ** S.L.  
ingenieria  
fontaneria  
calefacci6n

**Bulegoa eta komunen erakusketa**  
Zaldubia Industrialdea, 2  
**31730 IRURITA**

ONGI PASA BESTAK

Onduegia: 09:00-13:00 eta 15:00-19:00

Tel.: 948 58 11 71 - 659 77 85 48 - Fax: 948 58 07 82  
saskaitz@irurita.es

**Galarregi** Supermerkatua

Zerbitzu atsegina  
Aukera zabala edari eta likoreetan

Santiago, 12 • ELIZONDO • Tfn: 948 580 005

**arkitektoak**

ARKITECTURA ETA HIRIGINTZA

ETXEBIZITZA PROIEKTOAK  
URBANIZAZIO PROIEKTOAK  
ETXE BERRITZEAK  
NABEAK  
KONSULTAK  
INFOGRAFIA: 3D  
LUR NEURKETAK

Santiago 54 behe ELIZONDO Tel. 948 581 931  
www.arkitektoak.com - arkitektoak@arkitektoak.com





# ETXEBIZITZAK 168.000€<sup>tik</sup>

B.E.Z. barne

(3 GELA+GARAJE+GANBARA)

BAZTAN BERRI PLAZA Elizondo

**J B Iturria**  
CONSTRUCCIONES

Mendinueta kalea 6, baxua  
Tel. 948 580 304  
info@jbiturria.com  
www.jbiturria.com

OPOCA Elizondo



ISO 9001  
BUREAU VERITAS  
Certification



*Pisu edo baserriak zaharberritu,  
txaletak eraiki,  
eraikin zaharrak birgaitzen ditugu...*



**RENAULT**

# PEDRO GARMENDIA S.A



Santiago, 73 • ELIZONDO • Tel. 948 580 431 • Faxe: 948 580 973



# Elizondoko bestak



Argazkiak: Ondikol

## uztailak **28** ASTEARTEA herriaren eguna

**09:30** ARGI SOINUEK. **11:00** ERRALDOI eta BURUHAUNDIEN Ibilaldia. **14:30** ZIKIRO JATEA Kuartelkozelaian. **16:30** haurrendako ZIRKO IKUSKIZUNA eta TALLERRA Plazan. **20:00** KANTIRUKIrekin KANTALDIA Plazan. **21:00** DANTZA HERRIKOIAK Ziga Plazan. **22:00** MUTILDANTZAK. **00:00** GIZAJUA NI, KALEJIRA txarangarekin herrian barna. **00:00** JOXEANJELekin DANTZALDIA Plazan.



Argazkiak: Ondikol

**onegin**  
Herbodietética Ekodenda

**ZERBITZUAK:**  
**DIETISTA:** Gantzen neurketa, Diabetes, Kolesterolerentzako dietak, Argaltzeko dietak.  
**NATURISTA:** Naturopatia, Homeopatia

**PRODUKTU EKOLOGIKO eta NATURALAK**  
**PRODUKTU ARTISAUAK**

Jaime Urutia, 26, behea • ELIZONDO • 948 581 932

Calzados SINETAARDAK  
Lasterbat arratsaldetan  
**IREKIA**

**VIRGILIO**

948 580 209  
ELIZONDO

**MERKEALDIA**  
**MERKEALDIA**  
**MERKEALDIA**

Parfumerie - Centro de Estética  
**Beatriz**

Perfumeak • Komestika  
Oparitzeko artikulua

Santiago, 53 • ELIZONDO • Tfnoa/Faxa: 948 580 283

Foto  
**Depilación**

**TRATAMENTUAK**

**AURPEGIKOAK:**  
DERMATITISA, AKNE, ARROSA KOLOREA...

**GORPUTZEKOAK:**  
GEHIEGIZKO PISUA • LIKIDO-ERRETENTZIOA  
ZIRKULAZIOA • LARRU AZALA  
ALERJIEK JASANEZINTASUN TESTA

**ZERBITZUAK**

- DEPILAZIOA: ARGIZARIZ, ELEKTRIKOA, LASER BIDEZ
- MANIKURA
- MAKILLAJEA
- SOLARUM-a



## «Behikaka jaialdian parte hartzeko jende aunitzek eskaini digu bere laguntza eta denetarik izanen da»



Fernando ANBUSTEGI  
Xorroxineko esataria

Berrikuntzaz ongi hornitua heldu da aurten Santiago bestetako egitaraua eta horietariko bat, Xorroxin Irratiaren eskutik dator, Behikaka ekimenaren bidez, sari ederrak banatuko baitituzte besta giroan. Irratiaren aitzinaldeko belagia metro erdi luze-zabal izanen duten 4.000 laukitxoetan banatuko da, guzira 50 lerro eta 80 zutabe osatuz eta laukitxo horiek salgai daude, 5 euro bailo duten boletotan. Kamixetak ere saltzen ari dira 10 euroan. Fernando Anbustegi, 31 urteko Xorroxineko esatari elizondarrak aipatu digunez, *“kamixeten salmenta ongi doaie eta boletoa ere saltzen ari dira mantso-mantso, baina eguna hurbiltzen den neurrian gehiago salduko dela pentsatzen dugu. Lesakako Sanfermin egunean ere mahaia paratu genuen eta Baztandarren Biltzarran ere paratuko dugu”*. Jendeak ongi hartu du Xorroxin Irratiak, laguntza gisara

planteatu duen ekimena, *“ideia arras originala eta polita dela erraten daukute”*.

Hiru behi sartuko dira belagian, Zagua, Erdiz eta Lore izenekoak, bana-ka, eta sariak ere ez dira nolana hikoak. Lehenbizikoaren kakak hirugarren saria emanen du: Zumaiako Karakas landetxean bi lagunendako asteburuko egonaldia; Zumaiako Talasozelai talasoterapia gunean zirkuito bat hamar lagunendako eta Basakaitz esneki lotea. Bigarren behiak bigarren saria erabakiko du: Izabako Txapatera landetxean 6 lagunendako asteburuko egonaldia; Arabako Murua herriko Gorbeia landetxean bi lagunendako asteburuko egonaldia, Aizarozko ostatuan bi lagunendako afaria eta Lurlan produktu lotea. Eta hirugarren behiaren kakak lehen sari bikaina banatuko du: Enkarterrietako Amalurra hotelean astebeteko egonaldia bi lagunendako; Castillo de Gorraiz hotelean bi lagunendako afaria, spa eta gaua, Arzak jatetxean afaria bi lagunendako eta Aroa ardo lotea. Behiek kaka non egiten ahal duten? Ez dago pronostiko garbirik eta Jokin Ramirez, behien nagusiak aurkezpenaren egunean erran zueenez, *“gogoia non sartzen zaien, hantxe eginen dute!”*.



**ELBETEKO POSADA**  
Barrioan, 1 - 31700 Elizondo (Navarra) - Tel.: 948 58 13 83 - 948 58 1618  
www.posadainbete.com - info@posadainbete.com

**Merkaopari**  
Elizondo-Bera-Donestebe  
Herritarrei eta enpresa berriak laguntzeko proiektuak egiteko zuzendutako proiektuak. Hainbat proiektu zara eta ez inportantea da proiektu bakoari laguntzea. Ahal bada, herriko enpresa berriak laguntzeko proiektuak. Modernak, egungoak, prezio merkeak.

ongi pava bestak

**da**

astizanaia  
ZURGINDEGIA  
Zurgintza lanak orokorrean  
Aldude etorbidea, 5 - ELIZONDO  
Tel. 699 325 449 - 948 580 886

**ferreteria Quevedo**

Babesa eta edertasuna guziaren gainetik

- Elektrizitatea
- Zerraildegia
- Erremintak
- Joareak
- Haziak...

**BONDEX**

Santiago 31 • ELIZONDO  
Tfnoa: 948 580 234  
Faxa: 948 581 210





Behien kaka noiz egin zain egon bitartean, hainbat ekitaldi antolatu ditu Xorroxin Irratiak, bere bulegoaren ondoko belagian uztailearen 26rako.

Hori bai, belagira atera baino lehen ongi bazkatu eta zainduko dituela segurtatu zuen.

Baina behien "ikuskitunaz" gain bertze hainbat ekitaldi izanen dira: Julio Soto eta Julen Zelaieta etortzekoak dira, musikariak... **"Egitaraua zehatz-mehatz ez dugu oraino, jende aunitzek eskaini digulako bere laguntza, taloak egiteko, ostatuan lan egiteko, bertso-lariak, musikariak... Denetarik izanen da, baina ez dugu zehaztu zeinekin. Zuzeneko irratsaio bat ere egingen dugu, jokaldi hoberekin, eta musika eta bertsoak tartekatuz"**.

Oraindik boletoak eskuratu ez dituenak, edo gehiago behar duenak eskualdeko herri gehienetako dendetan dauka horretarako aukera, baita [boletoak@behikaka.com](mailto:boletoak@behikaka.com) helbide elektronikoan ere. Kamixetak ere, dendetan ez ezik, [kamixetak@behikaka.com](mailto:kamixetak@behikaka.com) helbidean eskura daitezke.

## Egitarau erreala

Elizondarra

izanik ere, gauza batengatik edo bertze-arengatik, Fernando Anbustegik ez du herriko Santiago bestetaz sobera gozaterik izan, "urte dexente ostatuan eman ditut eta ez dut hainbertze gozatu, eta azken bi urtetan-edo, ari naiz

**bestekin gozaten. Aurten irratitik ere egunen bat libre hartuko dut, eta aprobetxatzen saiatuko naiz"**. Halere, Santiago bestak baino Baztandarren Biltzarra nahiago duela onartzen du, **"herrikoia goak eta partehartzaile goak dira"**.

Aurtengo egitarauan aldaketa dexente somatu ditu eta **"errealagoa"** dela iruditzen zaio. **"Elizondoko egitarauak azkeneko urteetan ez ninduen sobera erakartzen eta beharbada horregatik ez nuen oporrik hartzen ere. Txoznek egitarau alternatibo gisako bat antolatzen zuten eta lan handia egin da azken urteetan horrekin eta hobetu da. Aurten jende berria sartu da lanean, eta egitarau frexkoagoa egin dute, azken urteetan instituzionalegia iruditzen zitzaidan, ez zen gure eskualdeko herri bati zegokiona"**. Beti ere libre hartzen duen egunaren arabera, galduko ez dituen ekitaldien artean **"kontzerturen bat, zikiro-jatea edo gazteen eguna"** daude, eta hori bai, **"txoznetan turnoren bat ere egingen dudala seguru, hor seguru ez dut hutsik egingen"**.

Xorroxin Irratian bertsoaritzaz saio bat gidatzeaz gain, Nafarroako bertsolari txapelketan aurkezle eta gaiemaile lanean ere ikusi dugu Fernando eta hori, Elizondoko Santiago bestei zor diela onartu du: **"Bitxikeri gisara, gai-jartzaile lanean Elizondoko bestetan hasi nintzen, txoznetan, eta hor hasi eta geroztik zerbait egin dugu. Azken urteetan beti izan da bertsoa Santioetan eta arras ongi, jendea biltzen da eta gazteengan zaletasuna indartzen ari da"**. Aurten, ordea, ez da deus programan eta zerbait beharko zela pentsatzen du, **"bertso-poteoren bat, bederen"**.

ongi peño bestak

**BIDEGAIN**  
**ARRAINDEGIA**

ELIZONDO - T. 948 580 496  
DONEZTEBE - T. 948 456 188

**BICLAM**  
ileapaindegia



Brailko Irtaria. 58 • ELIZONDO • Tfnoa: 948 581 874  
artehakidea

ORDUTEGIA:  
asteartetik ortzagunera 9:00-13:30 / 15:30-19:30  
ortziraletan 9:00-19:30 • larunbatetan 8:00-18:00  
igande eta asteleheneretan itxia

**Angel TRANTXE**  
elektrizista



Instalazio  
elektrikoak

Konponketak



Tfnoa: 948 452 246  
Mug.: 679 454 113 • ELIZONDO

**REPSOL**  
**YPF**



**Pedro**  
**GARMENDIA**  
zerbitzu estazioa

- Gasolina eta Gasolioa
- Presio bidezko garbiketa
- Garbiketa automatikoa
- Olio eta lubrikatzaile salmenta

ELIZONDO • Tel.: 948 580 309





Ordenagailu bidezko direkzio zuzenketa  
 Mekanika • Elektrizitatea  
 Gasen aztertzailea • ITVrako prestakuntza

**DATUCELAY**



Santiago, 90  
 ELIZONDO  
 Tel. 948 580 225



**suteia**  
 INSTALAZIOAK

ongi pasa bestak



**igogailuen instalazioa**

Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)  
 Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810  
 suteia@suteia.com





## KRISIAREN AURKAKO PLANA. NAFARROAKO GOBERNUA

Larunbetarrek sukaldea aldatu dute, Carmenek eta Jesusek LTDa daukate, Silviak eta Edumek ez dute zergarik ordaintzen beren arkitekto-bulegoan lehenbiziko urtea delako. Anak lana aurkituko du. Marisari behar zuen kreditua eman diote. Eta Tomasek eta Julenek goragailu berria erosiko dute beren tailerrerako. Hori guztia Nafarroako Gobernuak Krisiaren aurkako Planean sartutako laguntzei esker.

Zuk ere laguntza horietaz baliatu nahi baduzu, argibideak ikusi webgune honetan:

[www.plananticrisis.navarra.es](http://www.plananticrisis.navarra.es)

848 42 10 10

2012 ZUREKIN  
BAGOAZ AURRERA

 Nafarroako  
Gobernua



## KAZETARITZA

# Ricardo Arregi Kazetaritza Sariaren Ohorezko Aipamena jaso du Ttipi-Ttapak

Tokiko komunikabideen artean aitzindari izan zelako eta zailtasunei aitzin egin dielako

## ttipi-ttapa

Tokiko komunikabideak sortzen aitzindaria izan zen **Ttipi-Ttapa**. Duela 29 urte ekin zion ibilbideari, eta geroztik, Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Malerreka, Leitzaldea eta Xareta aldeko herritarrei eskualdeko gertaeren berri emateko lanean ari da. Bidean hainbat «zailtasun ere gainditu ditu baina aitzinera egin du». Hain zuzen horregatik, «tokiko komunikabideetan lehenbizikoetarikoa izan zelako», «komunikazio-egitasmoak egoiki erantzuten diolako xede duen gizarte nafarri», «egoera zailetan aurrera begiratzeko eta bertez hedabide batzuekiko sinergiak bilatzeko kemena izateagatik» eta «zailtasunak zailtasun, euskara hutsezko kazetaritzaren adeko apustu ausarta egiteagatik» jaso zuen joan den ekainaren 27an Ricardo Arregi Kazetaritza Sariaren Ohorezko



ARGAZKIA: AIURRI

Lehenbiziko lerroan, ezkerretik hasita, Gorka Bereziartua (Argiako kazetaria), Iñigo Martin (Kostaldeko trenari irratia) eta Pello Apezetxea (EITBko kazetaria) eta Pello Apezetxea eta Joxemanuel Irigoien (Ttipi-Ttapa). Gibelesko lerroan, berriz, epai-mahaiko kideak ageri dira.

Aipamena Andoainen (Gipuzkoa). **Ttipi-Ttapa**ren izenean Pello Apezetxea presidenteak eta Joxemanuel Irigoien kudeatzaileak hartu zuten aipamena.

### 1988AN LEHEN ALDIZ

Ricardo Arregi Kazetaritza Saria Andoaingo Udalak 1988an sortu zuen, euskarazko kaze-

taritza bultzatzeko eta indartzen laguntzeko. Andoaindarra zen Ricardo Arregiren izena jarri zitzaion sariari, euskal idazle, kazetari eta kultur eragile handia izan zelako.

Aurtengo sari nagusia Txinako berriemaile den Olatz Simon EITBko kazetariak jaso zuen, euskaraz Txinan egin-

dako erreportaje sortagatik. Kazetari berria saria Argia astekariko Gorka Bereziartuarentzat izan zen eta laugarren saria Euskadi Irratiko *Kostaldeko trenari* irratia jaso zuen.

### TTIPI-TTAPAK HAINBAT SARI ESKURATU DITU

**Ttipi-Ttapa**ren lanak lehen ere jaso ditu ai-

pamenak. 1995ean Argia Saria jaso zuen, «euskarazko irakurleak ia deusetik sortzeko apustua egiteagatik eta herri prentsako erreferentzia nagusietako bat den eta Nafarroako eskualde oso bati bizi berri bat eman diolako».

1997an ere Ricardo Arregi Kazetaritza Saria jaso zuen, *Entzun!* musika aldizkariarekin batera, «euskararen erabilerrako mundu berriak eskuratu zituztelako». **Ttipi-Ttapa**ren kasuan, «euskarazko prentsaren munduan, aldizkari informatzio guziarekin, edizio elektronikoa Internet sarean eskaini duen lehena» izateagatik. 1996ko uztailaren 5ean hasi zen Interneteko edizioa argitaratzen.

1990ean Iruñeko Zaldiko Maldiko elkarteak Lamien Urrezko Orrazia izeneko saria ere eman zion «hamaboskariaren alde emandako pausorengatik» eta 1991n, berriz, Arkupeak elkarteak.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. Fax: 948 63 10 27

elika

Dietetika... elikadura

www.aurora.com

948 63 10 27

Alberto RETEGI

abokatu

abokatu

© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

ZJ

Zalain

jatetza - hostala

14 logela bainu eta TBrekin

Zalain auzoa s/g  
Tfnua: 948 63 09 67  
BERA



## ERREPIDEA

# N-121Ako Bera eta Irun arteko zati berria zabalik

60 milioi euro kostatuta lanak

### ttipi-ttapa

Iragarri bezala, ekainaren 26an, inauguratu zuten ofizialki Enderlatsako zubian N-121A errepideko lanen barrenean, Bera eta Behobia lotzen dituen zati berria. Ekitaldian, Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko presidentea eta Markel Olano Gipuzkoako ahaldu nagusia izan ziren, Bortzirietako udal ordezkariarekin batera.

Olanok adierazi zuenez, bi herrialdeak «*anaiak*» dira, eta bien arteko «*harremana sakondu*» egin behar da «*arloan ekonomiko, sozial, kultural eta linguistikoa*». Sanz ere harremanari eustearen alde agertu zen: «*ezin dugulako bizkarra emanda bizi*».

Lanak 60 milioi euroko aurrekontua eduki dute. Horietatik 52 milioi Gipuzkoako Foru Aldundiak jarri ditu eta zortzi Nafarroako Gobernuak. 6,6 kilometroko errepidea da; berria %60ean. Hiru lerro ditu zati gehienan eta bi tunel: bata 477 metrokoa Lamiarrin eta bertzea 105ekoa Intxaurretan. Horrez gain, lau bidezubi ditu, 98 metrokoak gehienak. Enderlatsa parean 190 me-

troko zubi eraiki dute.

### 26 HILABETEKO LANAK

2004ko maiatzean lanak egiteko hitzarmena sinatu zuten Nafarroako Gobernuak eta Gipuzkoako Diputazioak eta lehiaketa bidez, Mariezkurrena, Zubi Eder, Nor-tunel eta Urssa Aldi Baterako Enpresen Elkar-teak egin du obra 26 hilabetez. Enderlatsako zubi berria Javier Mantero-rola ingeniari nafarrak diseinatu zuen: 190 metro luze ditu eta 1.000 tona altzairurekin egin da.



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA

Goiko argazkian udal ordezkariak eta Gobernu eta Foru Aldundiko ardura-dunak zinta moztzen. Behekoan zubi berria ageri da.

## N-121A Herri Ekimenarentzat irekiera gazi-gozoa

### ttipi-ttapa

Inaugurazio ekitaldia baino lehen, Auzolan N-121A Herri Ekimenak bere hausnarketa jakinarazi zuen. Erramun Martiarena bozeramaileak gogoratu zuenez, «*2003ko azaroaren 19an sinbolikoki itxi egin genuen bidea* –minutu batez zinta batekin itxi zuten– *eta gaur berri zabaldu du*». Ekimeneko kidea pozik agertu zen hainbat urteren ondotik azpiegitura berria ireki delako, baina, aldi berean, bidean hildakoa gogoratu zituen eta «*lana aunitzez lehenago egin behar zela*» azpimarratu zuen.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Auzolan N-121A herri ekimena.

2003tik honat 40 bat lagun hil dira errepide horretan, ehun baino gehiago hamar urteotan, eta horrek «*ondoko belaunaldiak harrituko dituen porrot kolektiboa suposatzen du*». Errepide berrian

ere «*kontuz ibiltzeko*» aholkua eman zuen. Gaineratu zuenez, «*garai batean Enderlatsa izan zen erruleta errusiarretik Enderlatsako Akordio eta Besarkadara pasatu da*».

**carohe**  
gustatzen duke  
Calle Aragorri 25 Berr  
1-948 63 08 19  
Txi Carrohe (carrohe) www.carrohe.net

HERRIKO ETXEN  
LENTEGIA  
CAFÉ DE LA MAIRIE  
T: 0559542519  
Muzon eta Vitorriak  
SARA

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
#agardotegia jatetxea  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA



## GIZARTEA

# Saharako haurrak ekartzeko zozketako sarituak jakinarazi dira

Zenbaki saritu bakoitzak bi lagunentzako otordua izanen du

## ttipi-ttapa

Azken urteotan bezala, bisitan ditugu Saharako haurrak. Guztira zortzi etorri dira, nahiz eta hasiera batean bederatziz ziren etortzekoak. Ekainaren 29an etorri ziren eta uda osoan hemen egonen dira. Zortzi neska-mutikoetatik bat Zubietan egonen da, bertze bana Sunbillan eta Beran, bi Arizkunen eta bertze bana Erratzun, Elbeten eta Elizondon. Euren herrian jaso ezin dituzten zerbitzuak eskaintzea, eta bide batez, Saharako herriaren egoera zein den ezagutaraztea da Saharaztan Baztan-Bidasoako Saharar Herriaren Aldeko Elkartasun Taldearen helburua.

## ZOKZETA

Saharako haurrak udan eskualdera ekartzeko laguntza lortzeko egindako zozketako zenbaki sarituak jakinarazi ditu Saharaztanek. Ekainaren 23an



MIKEL GEREKAK UTZITAKO ARGAZKIA

**Aurten zortzi neska-mutiko etorri dira Saharatik. Bederatzi etortzekoak ziren baina azkenean batek huts egin du. Etorri direnak Zubietan, Sunbilan, Beran, Arizkunen (bi lagun), Erratzun, Elbeten eta Elizondon egonen dira.**

egin zuen zozketa eta ohi bezala, zenbaki saritu bakoitzak bi pertsonentzako afaria edo bazkaria izanen du jatetxe hauetan.

**Arizkunen**, Ordoki Likorerian 3.176; Uxoia jatetxean 1.603 eta Bixta-Eder jatetxean 1.850. **Elbeteko** ostatuan 2.751; **Elizondoko** Galarlartzan 1.080, Eskisaroin 1.583, Kortarixarren 2.453 eta Itzalargiko-

bordan 2.638. **Garzaingo** Fransenean 1.570; **Lekarozko** Larraldea sagardotegian 2.873; eta **Ornoz-Mugairiko** Pierresenean 2.969.

**Donamariko** Herriko Ostatuan 1.842 eta Donamariako Bentako 2.061; **Oitzko** Ostatuan 2.990; **Beintzako** Ostatuan 2.202; **Elgorriagako** Hilarionen 2.268; **Iturengo** Herriko Osta-

tuan 1.865 eta Altxunea erretegian 1.196.

**Igantzi**ko La Villan 2.063; **Etxalarko** Herriko Ostatuan 1.173 eta Elutsan 1.457; **Lesakako** Koxkotan 2.545 eta Arranon 3.093.

Saria eskuratzeko bi hilabeteko epea izanen da eta jatetxera joan baino lehen deitu beharko da. Saridunaren txartela otordua egin aitzinetik erakutsi beharko da.

## BORTZIRIAK

## Bestabusa Lesaka eta Berako bestetan

## ttipi-ttapa

Aurten ere Bestabusa zerbitzua martxan jarriko da Bortziritako bestetan. Hasiak direnak Lesakako Sanferminak dira eta Bestabusa ortziral eta larunbatean egonen da. Hau izanen dira ordu-tegia. Arantzatik 21:45ean eta 23:30ean aterako da autobusa aparkalekutik; Igantzitik 22:00etan eta 23:45ean Bibiden; Etxalartik 22:15ean eta 00:00etan Landaburuan. Beratik Lesakarako autobusek Toki-Ona institutuaren parean eta Agerran eginen du geldialdia eta 22:00etan, 22:30ean; 23:00etan; 23:30ean; 00:00etan eta 00:30ean abiatuko dira. Itzulerako autobusa Lesakako suhiltzaileen aparkalekutik aterako da, 3:30ean eta 6:30ean Arantza, Igantzi eta Etxalarra joateko eta 3:30ean, 4:30ean, 6:00etan eta 7:00etan Berara itzultzeko. Berako Sanesteban beste dagokionez, Bestabusa zerbitzua abuztuaren 1ean, larunbatarekin, egonen da. Arantza, Igantzi eta Etxalarkoek Lesakarako izanen dituzten ordutegi berak izanen dituzte Berara joateko eta Lesakarako Berakoek Sanferminetan Lesakara joateko dituztenen berdinak.



**www.ttipi.net** uterik parte hartzeak aukera eta balabide ugari ditu:

- » Artikulu baten gainean klikatzean, artikularen bukatzen aurretik dago inberritakazari buruz iruzkin eman...
- » Norberak bere artikulu bidaltzeko: agendak argitaratzeko, urtebetetzeko, merkatu txiki inberritak...
- » Denda bertuteak, urtebetetzeko, estakak, inberritak...



- » berriak
- » agenda
- » urtebetetzeko
- » merkatu txiki
- » dendak
- » ...
- » eguraldi
- » baserris
- » gastronomia



## BERA

# 'Bera' izanen da herriaren izendapen ofizial bakarra

Epategiak Udalari eman dio arrazoia

### ttipi-ttapa

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak arrazoia eman dio Udalari eta hemendik aitzinera *Bera* izanen da herriaren izendapen ofizial bakarra. Hain zuzen, joan den urteko urtarrilean onartu zuen Udalak izendapena, ANV (lau), Aralar (bi) eta PNVko (bi) aldeko botoekin eta EAren hiru abstentzioekin. Udalak Euskaltzaindiak 1979an hartutako akordioa hartu zuen oinarritzat, orduan *Bera* eman baitzuen izen ofizial bakartzat herriko agiriak eta ahozko transmisioa aztertu ondotik. Udalak 1989tik erabiltzen zuen *Bera* bakarrik, baina Nafarroako Gobernuak *Bera Vera de Bidasoa* izendapen bikoitza erabiltzen zuen eta hori aldatzeko erabakia izan zen Udalarena.

Gobernuak, ordea, berean segitu zuen eta aldaketa ukatu eta izendapen bikoitzarekin segitzea defendatu zuen. Honen kontra auzitegirajo zuen Udalak eta due labi aste bere aldeko erabakia hartu zuen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak.

Ohar bidez, Aralarrek erabakiarekin «pozik» gelditu zela adierazi zuen.

### Udaleku irekiak

Astelehenez geroztik, badute non gozatua Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Dindaia Fundazioak antolatutako udaleku irekietan izena eman duten 40 neska-mutikoeek. 3 urte-tik 8 urterako 30 haur dira eta 8 eta 12 urte bitartean dituzten bertze 10. Uztailaren 31 bitarte, adinaren arabera bi taldetan banatuta, denarik jarduerak egiten dituzte, astelehene-tik ortziralerara 10:00etatik 13:00etara.

Zegozkien probak gainditu ondotik, lau gazte hauek dira begiraleak: Nahia Sagastibeltza, Ainhoa Lantz, Jon Iratzoki eta Saioa Garbisu.

### Lilulatura karriketan barna

Ortzegun honetan, uztailak 9, lilulatura ekimenari hasiera emanen zaio, eta irailaren 3ra arte bisita gidatuak egiten dira herriko karriketan barna. Lilulatura testu literario, istorio ttiki, ipuin eta abarrekin, karriketan



UTZITAKO ARGAZKIA

### Amak ere saskibaloian

Martxoan jokalaria talde berri bat sortu zen Toki Ona Bortzirriak saskibaloitaldean: gurasoen taldea, eta zehatzago erranez, ama batzuk osatutako taldea. Hasieran jokalaria gaztetxoek gurasoen arteko broma izan zen, «*gure aritzen ahal ginake, eta gero alaben kontra ariko ginateke...*». Ondotik, Jesus Alacid entrenatzaileak erronka bere gain hartu, eta entrenamenduak antolatu zituen. Astean bitan hamabi bat emakume kiroldegian entrenatzen hasi ziren. Saskibaloitari buruz apenas deus jakin gabe, irri aunitz eginez, ongi pasatuz, eta ederki izerdituz. Hiru hilabetez talde dezentea lortu zuten Jesus eta Imanol entrenatzaileek. Eta proba ekainaren 13an egin zuten: egun horretan ama-alaben arteko partida jokatu zen. Emaiza franko desorekatua izan zen (16-49), baina «*izugarri esperientzia polita*» izan dela kontatu digute parte-hartzaileek.

egindako bidaia literario bat da eta ez da halako zerbait egiten den lehenbiziko aldia. Lamixine Bat antzerki taldeko aktoreen laguntza izanen da horretarako.

Bisitak ortzegunero egiten dira, 19:00etan Kultur Etxetik abiatuta. Izen-ematea egun berean egin daiteke, bisita hasi baino 30 minutu lehenago arte, Turismo Bulegoan. Bi euro ordaindu beharko dira.

### Folklore Jaialdia

Irungo Eraiki Dantza Taldeak antolatuta, Bidasoaldeko Gazteen Folklore Jaialdiko emanaldi bat Altzateko plazan egiten da uztailaren 23an

—eguraldi txarra egiten badu, Altzateko frontoian—. 20:00etan hasi-ko da saioa eta hiru taldek hartuko dute parte: Tanok (Krasnodar, Errusia); Danzas Temerí (Guanare, Venezuela) eta Eraiki Dantza Taldea.

1996an hasi zen Eraiki taldea Nazioarteko Gazteen Folklore Jaialdia antolatzen, dantzariak saritu eta ikasturtean egindako lana zabalteko eta aurtengoa XIII. edizioa izanen da.

### Balkoi lehiaketa

*Gure herria lorez bete*a. Horrela du izena Larun-Haizpe merkatarien, ostalarien eta zerbitzuen elkarteak bigarren urtez

antolatu duen lorez apaindutako balkoi lehiaketak. Ekainaren 25ean abiatu zen eta uztailaren 25era bitarte etxeetako balkoiak lorez beteak egonen dira. Iaz bezala, balkoirik ederrenek saria jasoko dute.

Irabazleak epai-mahai batek izendatuko ditu, eta sariak uztailaren 31n, plazan emanen dira, 20:30ean. Sari banaketaren ondotik, luntxa ere izanen da. Lau lehenbiziko sari emanen dira, auzo bakoitzeko bana: Altzate, Legia-Kanttonberri-Eztegara, Berako Plaza ingurua eta Agerra. Sariak balkoiko argazkia, lore-detailea eta afaria izanen dira.





## LESAKA

# 'Badakizue, egizue!' jaialdi arrakastatsua egin zen San Juan bezperan

Albisturko etxe izenak paratu eta Eutsi taldearen aurkezpena

Aitor AROTZENA

*Badakizue, egizue* izenburupean Lesako Euskara Batzordeak eta Gazte Asanbladak antolatua jaialdi ederra egin zen San Juan bezperan. Lehenik, soinu-lari eta txistulari taldean laguntzaz kalejira egin zen eta Albistur karrikan etxeen izenak paratu ziren.

Kalejira komentuko zelaira ailegatu zenean hasi zen besta. Ausartenak kukañan goiti sari bila zebiltzan bitartean, dantzariak txalaparta eta trikiti doinuekin aritu ziren. Segidan, tablaturan bertso eskolako ikasleek zenbait bertso eskaini zituzten, jaialdiaren izenburuarekin bat ginez. Gero, jen-

daurreko aurkezpena egin zuen Itziar Telletxeak, Olaia lantzik, Haizea Irigoienek eta Aritz Telletxeak osatzen duten Eutsi musika taldeak. Pintxo eta edariak banatu zituzten txoznek ere lan ederra egin zuten.

Sanjuan gaua zenez, suak ere piztu zituzten eta han ibili ziren gaztetxoek saltoka. Eutsikoek bere emanaldia bukatu zutenean, Salvador Madariaga akordeolariak, Egoitz Telletxea perkusioan lagun zuela, zenbait kanta eskaini zituen eta bestak gauerdira arte iraun zuen. Arratspolita, udari ongietorria eman bidenabarkoan, euskaraz egitea eskatzeko.



## Joseba Iturbide isolamendura

Puertoko kartzelan (Cadiz) dagoen Joseba Iturbide herriko preso isolamendura eraman zuten, aurrez aurreko bisitabaten ondotik, funtzionarioek biluzteko agindu eta horri uko egi-tegatik. Josebak gose grebari ere ekin zion, protesta modura.

## Agurra Javier Etxeberriari

Ekainaren 22an Musika Eskolak eskainitako kontzertuan omenaldia eskaini zitzaion Javier Etxeberriari. Urteetan klarinete eta saxofoi irakasle ez ezik, zuzendaria ere izan da eta bertze hainbat lan egin ditu, Tobera enpresa sortzeaz gain.

## Aparkalekuak egiten

Udalak 50 aparkaleku egokitu ditu komentu gibelesko aldean eta garai batean mataderoa izan zen eremuan. Abuztu aldera, ikastolaren aitzineko aldeko baratzean ere aparkatzeko tokia egokitu da, Espainiako Gobernuaren laguntzaz.

## Euskal Futbol Campusa abian

Euskal Futbol Campusaren seigarren edizioa lehen txanda egin zuten ekainaren 22tik 28ra 40 neska-mutikok, tartean herriko zortzik, baina gehienak Erribera eta Iruñerrikoak. Bigarren txanda uztailearen 27tik abuztuaren 2ra egingen dute.

## Bestabusa asteburuan

Sanferminak azken txanpan sartuak dira, baina ortziral eta larunbat arratsean Bestabus zerbitzua izanen da. Arantza, Igantzi eta Etxalartik abiatuko da autobus bat (2 irteera, 2 itzulera) eta Beratik bertze (3 irteera eta 4 itzulera ordurekin).

**José I. Gonzalez Enguita**  
pinturak

barrukoak eta fatxadak

tel. 666 235 466

**XATURETXEA**

**ZAZPI**

**JATETXEA**

T. 948 637 260 - LESAKA

**BOJZ-AIDZ**

**IRANWIDENIA**

www.lesaka.es

**IRU BIDE**

Erretxela - Asador

San Juan, 3 - LESAKA

tel. 948 637 127



## ETXALAR

### ‘Baleike’ musika taldea sortu dute Irune eta Itsaso Elizagoienek

Aurtengo udan Lesakan, Arantzan, Zubietan, Aurizberrin eta, nola ez, Etxalarren joko dute

#### Joseba eta Nerea

Bekoetxeko Irune eta Itsaso ahizpek *Baleike* trikitixa taldea sortu dute Iker Martiarena berritararekin eta Iñigo Manteola aginagarrarekin batera. Betiko trikitixa doinuak «*estilo propio eta desberdinarekin*» eskainiko dituztela erran digute. Eta martxa ederrean hasi dira gainera! Dagoeneko bi herritan jo dute, Altzateko bestetan eta Atxondon (Bizkaian). Sanferminetan Lesakan joko dute, uztailaren 11n, eta ondotik Arantza, Zubietan eta Aurizberrin ariko dira. Halere, Etxalar-ko bestatakoa izanen da, kontzerturik bereziena. Abuztuaren 17an joko dute. Zorterik onena!

#### Obra berriak panaderian

Uztail hasieran obrak hasi zituzten herriko okindegian. Orain arte egon den egurrezko labea kendu eta gasoliozkoa paratuko dute. Horretaz gain, makineria berrituko dute, fermentadora berria erosiz. La-

nek 100.000 euroko aurrekontua dute eta herriko bestetarako akabatzea espero du Udalak. Bitartean, Lesakako Rekondo okindegitik ekarriko dituzte ogiak. Hori dela eta, ordu egian aldaketa ttiki bat egonen da. 6:30etik 8:30 arte irekita egonen da baina 8:30etik 9:00etara itxi egiten dute, panaderoa Le-

sakara ogi eske joateko. 9:00etatik 10:00etara irekiko dute berriz. Salneurriak betikoak izanen dira.

#### Udalekuak 2009

Bortzirietako Euskarra Mankomunitateak eta Dindaia fundazioak antolatuta, uztailaren 6an udalekuak hasi zituzten haurrek. 10:00etatik 13:00-



ARGAZKIA: ARANTXA BIZENTE

#### Sortu berri den Baleike taldeko partaideak.

etara ariko da 20 eta gehiagoko haur koadrila hainbat jolas eta ekintza ludikotan. Jone Bizente herritarra, Lesakako Lei-

re Aletxa eta Doneztebeko Olatz Jorajuria dira begiraleak. Uztailaren 31ra arte luzatuko dituzte udalekuak.



ARGAZKIAK: ARANTXA DANBORIENA

#### Sanjuan suak lehenbiziko aldiz herriko plazan

Aurten lehenbizikoz, Sanjuan arratsa, urteko arratsik motzena, herriko plazan ospatu zuten herritarrek. Ilunabarrean berendu-afaria egin zuten frontoian, bakoitzak etxetik eramandako janari eta edariekin. Ondotik, ohiturari segituz, haurrek herriari buelta eman zioten joare batekin kantari. Azkenean, 21:30ean bi su piztu zituzten plazan eta saltoka aritu ziren haur eta helduak. Suaren inguruan kantari ere aritu ziren batzuk, tartean Amaia Zubiria abeslari ezaguna, lagun batzuekin. Antolatzaileak gustura zeuden herriko plazan egitearen ideia hagitz ongi atera zelako. Hurrengo urteetan ere mantenduko dute lekua.



**intzuri**  
OPTIKA

Biltzira, 36 LESAKA  
Tel. 948 627 550

# MERKEALDIA

**25% eta 20% merkeago**

EGUZKITAKO BETAURREKOTAN

**20% merkeago**

GRADUATZEKO BETAURREKOTAN



## ARANTZA

# Eliza garbitzen dutenek Landetara egunpasa eginen dute uztailaren 16an

Bidaian parte hartzerik ez dutenentzat astelehenean berendua izanen da

## Nerea ALTZURI

Aspaldiko ohitura da. Zortzi laguneko taldea osatuz, herriko etxe guzietako ordezkariak as-tero eta txandaka elizaren garbiketa egiten dute. Eta lan hori saritzeko, parrokiak Igan-tzikoarekin batera, ateraldia eta berendua antolatzen ditu. Urtero aldatzen saiatzen dira. Oraingoan, Landak eta Ibardin aldeak ezagutu dituzte.

Uztailaren 16an, or-tzeguna, goizean 7:00-etan aparkalekutik abiatuko da autobusa. Bidean gosalduta eta Biarritzera joanen dira. Goizean Landak bisitatuko dituzte eta bazkaltzera, Ibardingo Benta Berri jatetxera bilduko dira.

Autobusa parrokiak ordainduko du eta etxe

bakoitzetik nahi duen guztiak parte har dezake.

Egunpasara joan ezin direnek heldu den astelehenean 20:00etan berendua izanen dute Zahar Txokon. Berendura familia bakoitzeko lagun bat joan daiteke.

Bertalde, honen berri emateko idatzitako oharrean, eliza hain garbi edukitzeko egiten den lana eskertu nahi izan du parrokiak.

## Udaleku irekiak

Astelehenean udaleku irekiak abiatu ziren. Hamabortz gazte-txoz osatutako taldeak Aitziber Lizardi arantz-eta Maier Hoios irundar begiraleekin goizero hilaren bukaera arte ederki pasako dute.



ARGAZKIA: XABIER ZUGARRAMURDI

## Pilota eskola

Dindaiak Fundazioak eta Belate pilota elkarteak antolatuta, pilota eskolak egin ziren joan den astean herrian, ekainaren 28tik uztailaren 3ra. Guz-tira 32 neska-mutiko bildu ziren.

## Dantzariak indartsu

Aitzineko ale batean aditzera eman bezala, Amabirjin bestetako dantzariak prestatzen ari dira. Asteartez no-la asteburuetan, gazte-txo zein heldu lanean ari dira. Helduen taldean 13 dantzari daude eta aurten lehenengo aldiz beuren jantziekin dantzatuko dute. Herriko eta Sunbillako jostunek jositakoak izanen dira. Ilusioz beteak daude... Ortziral eta larunbatetan Amaia Telletxea eta Amaia Apezetxearen aginduetara ari dira. Aurrekua, fanda-goa eta arin-arina, Larraín dantza... dantzak

eginen dituzte. Eta no-la ez, herriko dantza Amabirjin egunean izanen dira.

## Arantzatik mundu zabalera

Uda garaian, ikas-turtean zehar eraman-dako bidea erabat aldatzeko modua izaten da. Leire Mitxelena, Maider Etxague eta Aintzane Pikabea kurtsoan zehar ikasleak dira. Guz-tia gairitu eta udan bertze aukerak egitera animatu dira. Herriko txistulari taldekoak dira hirurak, kuadrillakoak, eta bertze hainbertze eginkizunetan ere parte hartzen dutenak. Uztailan eta abuztuan, ordea,

etxetik kanpo hilabete bana pasako dute. Aintzane kimikako ikasle-tak egiten ari da Donostiako EHUko fakultatean, eta beka bat lortuta, uztailaren 11n Malta-ra doa familia batetara ingelesa ikastera. Goizean klaseak izanen ditu eta arratsaldean bertzelako ekintzetan parte hartuko du. Leire eta Maider, berri, uztail akaberan Perura doaz hilabete baterako Gobernuz Kanpoko Erakunde batekin. Leire erizaintza ikasketak egiten ari da Logroñon, eta Maiderrek heziketa bereziko magisteritza bukatu berri du. Bidaia on nes-kak!

**ANTZUZELAI**  
J.L.

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK  
Tel. 948 631 317 • Faxa. 631 587  
Irungo errep. BERA  
www.antzuzelai.com  
info@antzuzelai.com

Antzinak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, ateak, arkuak, plareak, timiniak, entzuzak, moldurak, zokaloak, hiriak, marmazkiak

Tel: 948 634 179  
**ARANTZA**

**ATERPE**  
ALBERGIA

ALBERGIA • JATETXEA

**ttipi**  
**ttapa**

☎ (0034) 948 635458

948 631 218

Kanttonberri 1, BERA

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

**KATEA-BIKE**



## IGANTZI

# Mendi bizikleta jautsiera uztailaren 25ean egingen da

Extreme Norte opererako zortzigarren proba puntuagarria izanen da

### ttipi-ttapa

Uztailaren 25ean, larunbatarekin, egingen den Mendi Bizikleta Jautsiera antolatzeko lanetan burubelarri dabil Biltoki elkarteak. Bertze 12 probekin batera, Extreme Norte Opererako puntuagarria izanen da eta Igantzikoa txapelketako zortzigarrena izanen da.

Ibilbidea urterokoa izanen da, Fraingo antenatik abiatu eta ur depositu zaharrean barna Osasun Etxera ailegatuko dira txirindulariak. Ibilbidea ezagutzeko, goizean 10:00etatik 14:00etara entrenamenduak egingen dituzte, eta arratsaldean jautsiera. Lehenbiziko txandakoak 15:00etan abiatuko dira eta bigarrenekoak 17:00etan. Lasterketan parte hartzeko 15 euro ordaindu beharko dira

izen-ematea aitzinetik eginez gero, eta 20 euro egun berean.

Horrez gain, arratsaldean, aparkalekuan ikuskizuna izanen da, saltoak egiten ariko baitira txirindulariak. Eguna-ri akabera emateko, berendu-afaria egingen da.

### LAGUNTZA EZINBERTZEKOA

Zirkuituko 16 puntutan egoteko jendea behar da eta horretarako laguntza eskatu du Biltoki elkarteak. Guttienez 18 lagun beharko omen dira eta 15 egun lehenagotik laguntza nork emanen duen zehaztua izatea nahitaezkoa izanen da.

Bertzalde, aipatu, irailan mendi bizikleta ibilaldia egingen dela.

### Udalekurik ez aurten

Bortzirietako Euskara



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

**Herritarrek ere parte hartzeko ohitura dute. Argazkian ageri direnak Imanol Retegi eta Xabi Telletxea dira.**

Mankomunitatearen eta Dindaia Fundazioaren ekimenez, uztailaren 6tik 31ra egitekoak ziren udaleku irekiak bertan behera gelditu dira, ez delakoz haur nahikorik apuntatu. Guttieneko kopurua 10 lagunekoa zen, eta sei baino ez ziren apuntatu. Joan den urtean, ordea, arrakasta handia edu-

ki zuten udalekuek, 24 lagunek parte hartu baitzuten.

### Igeriketa ikastaroak

Dagoeneko abian dira igeriketa ikastaroak. Astelehenean, uztailak 6, hasi ziren eta heldu diren hiru asteetan arratsaldean ikasten ariko dira. Lerro hauek idazte-

rakoan 16 ziren izena emandako neska-mutikoak, denak ere herri-tarrak.

Monitoreak, berriz, azken urteetan bezala, Urdi enpresako norbait izanen da. Udalak Urdirekin sinatua duen kontratuaren bitartez, monitore bat bidaliko du igeriketa ikastaroak eskaintzeko.

**Martiko**  
Poi Zalarri, 4/1  
31780 Bera, Nafarroa  
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036  
www.martiko.com

**MARTIKO**  
Hastidien ostialdi eta arrotz

**DENDA**  
OSURTUEN  
ASTELEHENEAN  
ORTZIALDIA

8.30etik  
12.30era

14.30etik  
17.00etara

Martikorekin  
zu zeu  
sukaldari.

## ARTEKARI TALDEA

### ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Emenda aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESACA: Sittiria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
BURLATA: La Villa, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713



## SUNBILLA

# Eskualdeko 12 udal Correosek zonaldean ezarri nahi dituen aldaketen kontra

Uztailaren 2an agerraldia egin zuten udaletxean

## Jaione OTXANDORENA

Bera, Lesaka, Igan-tzi, Arantza, Sunbilla, Doneztebe, Bertizarana, Baztan, Oitz, Urrotz eta Zugarramurdiko udalek bat egin dute Etxalarko Udalak zonalde osoan aurkeztutako mozioarekin. Mozio horretan Correosek ezarri nahi duen buzoi kontzentratuen sistemaren kontra daude. Eta horren harira, uzta-

laren 2an, agerraldia egin zuten herrietako udal ordezkariak Herriko Etxean.

Etxe bakarrak, base-riak edo «diseminado» izendatutako eremu berezietan buzoi kontzentratuak paratu nahi ditu Correosek. Hasieran uztailaren 1etik aitzinera egitekoa zen aldaketa, baina azkenean, urriaren 1era gibelatu du.



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

## Ikasturte akaberako besta

Ikasturte osoan lanean aritu ondotik, ekainaren 22an udako oporrak hartu zituzten neska-mutikoeak. Goiko eskolan pintxoak janez, ikasturte akaberako besta ospatu zuten ikasle, irakasle eta gurasoek. Herritarren ize-nean Rosario Oianart irakasleari omenaldi tiki bat ere egin zitzaion.

Legeak «diseminado» aipatzen duenean, auzoak direla berretsi zuten alkateek eta gaineratu zuten, «zerbitzu publikoak egunerokotasunean erabiltzen dituzten pistak egoera one-

an daude eta Correosek ez du inolako arazorik eduki behar etxe horietara ailegatzeko».


Udalen ekimenarekin bat eginez, Nafarroako Parlamentuan mozioa aurkeztekoa da NaBai,

Nafarroan etxek etxeko posta banaketa indarrean dagoen eremuetatik kentzea galerazte aldera, Nafarroako Gobernuak gestioak egin ditzan Espainiako Gobernuarekin.

# Lasao

• egurrezko altzaria •

Lasao Ind.20730 AZPEITIA • T. 943 15 11 82 • F. 943 15 10 98  
informacion@lasao.com • www.lasao.com



altzari bereziak, fabrikatik zuzenean, bitartekorik gabe



**DONEZTEBE**



**PERTSONAIA**

**Mikel BIAIN**

**Jesus Goldaraz ordezkatuko duen apez berria**

Sortzez oñatiarra (Gipuzkoa) den Mikel Biain da Doneztebe, Legasa, Narbarte eta Elgorriagako apez berria. Maiatzean jakinarazi zioten Jesus Goldarazen ardura hartuko zuela eta joan den ekainaren 13an, Bestaberri bezperan, hasi zen lanean. Ospakizun aunitzeko garaia tokatu zaio: Bestaberri Eguna, Sanpedro bestak... Edonola ere, «gustura eta poliki-poliki jendea eta ohi-turak ezagutzen» ari dela azaldu dio Ttipi-Ttapari. Euskalduna eta gaztea da Biain eta inpresio ona utzi du doneztebarren artean. Eskualdera etorri aitzinetik Luzaiden egondakoa da bortz urtez, bi urtez Auritzen eta bertze bitan Artzeko Bailaran.

## Udako Kirol Eskola antolatu du Errekak uztailaren 20tik aitzinera

Izen-ematea uztailaren 17an egin beharko da, 11:00etan frontoian

**ttipi-ttapa**

Aurten bederatzigarren aldiz, Udako Kirol Eskola antolatu du Erreka Kirol Elkarteak, Udalaren laguntzarekin. Hilabete batez, hainbat kirol jarduera egiteko aukera izanen dute herriko zein inguruko haurrek. Uztailaren 20an hasiko dira ikastaroak eta abuztuaren 14a bitarte egingen dira. Astelehen, asteazken eta ortziraletan izanen da ikastaroa, 11:00etatik 12:00etara lehen taldea eta 12:00etatik 13:00etara bigarren taldea. Ikastaroko ekintzak eskoletako frontoian eta kiroldegian egingen dira.

Kirol Eskola 6 urte-tik goitikoentzako dago zabalik, eta interesatuek izen-ematea uztailaren 17an egin beharko dute, 11:00etan frontoian. Errekako bazkide direnek 33 ordaindu beharko dituzte eta ez direnek, berriz, 36 euro.

**Eskolako komunetan obrak**

Ikasturtea bukatu eta neska-mutikoak udako oporretan daukela, zenbait konpon-

keta egingen dira eskolan. Aurtengoan komunak berrituko dira eta Miguel San Miguel alkateak adierazi digunez, 24.000 euro inguru kostako dira lanak. Fausto Ostolaza erakuntza enpresak egingen du obra.

Joan den urtean, eskola kanpoko aldetik berritzeko aprobetxatu ziren udako hilabeteak, eta ikastetxearen inguruan hesi berriak paratu ziren. 50.000 eu-

roko inbertsioa izan zen.

**Euskara teknikaria hautatzeko probak**

Zortzi lagunek eman dute izena Malerreka-ko Zerbitzu Orokorren Mankomunitatean euskara teknikari lanetan aritzeko egindako deialdian. Ekainaren 19an akitu zen izen-emateko epea eta orain, probak egingen ari

dira. Lehena, euskara maila neurtzekoa, ekainaren 26an egin zuten, bigarrena uztailaren 2an, eta hirugarrena eta azkena heldu den astean.

Azterketen ondotik, teknikari berria segidan hasiko litzateke lanean. Egungo teknikaria den Mikel Gartzia 2010eko maiatzera arte eszedentzia hartu du eta printzipioz ordura arte kontratua edukiko luke langile berriak.



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA

**Hurrengo urtera arte agur Sanpedro beste!**

Eguraldia lagun giro ederrean joan ziren Sanpedro bestak. Herritarrek zein kanpotik etorritakoek ederki gozatu zuten bortz egunez. Egun haundia, halere, Sanpedro Eguna izan zen. Urteroko zitak txukun bete zituzten herritarrek.

**CAMELOT PARK**

BIDALI ttipi-ttapa 5767 2 sarratsa

**BELARRA** JATETXEA

**MERTZERIA**  
*Leñe*  
**LENTZERIA**

Tel. 948 027 014  
Indurri Plaza, 13 - LESAKA



## ZUBIETA

# Euskara praktikatzera etorri diren bi lagunak 15 egunez egonen dira

Uztaileko lehen hamabostaldia herrian pasako dute

## Fermin ETXEKOLONEA

Azken urteotan bezala, euskara praktikatzera jendea etorri da gure artera. Helburu nagusia euskara inguru euskaldun batean praktikatu eta bertako bizi-modu eta kultura hurbiletik ezagutaraztea izaten da eta aurten bi lagun etorri dira uztaileko lehen hamabostaldia pasatzera. Bali-teke, uztaileko bigarren hamabostaldian eta abuztuan hilabete osoa pasatzera ere jendea etortzea.

## Barnetegirik ez oraingoz

Urtero urtero, IKA euskaltegiaren bidez, Barnetegia antolatzen da, baina aurten, momentuz behintzat, ez dugu inor izanen herrian, uztaileko lehen hamabostaldirako ez baitu inork eman izenik. Ikusi beharko da hurrengo aldietan jendeak izena ematen duen ala ez.

## Sahararrak oporretan

Ikasturtea akitzearekin batera, Zubieta utzi eta Saharara joan zen Duba oporrek familiarekin pasatzera. Azken bi urteotan Ibarrengo etxean bizi den sahararra da Duba, euskaraz ikasi eta herrian

ederki egokitu dena, baina eskolako denboraldia akituta, sorterrira joaten da familiarengana bisitan, eta aurten ere hala egin du. Zubieta uzterakoan, negar malko artean, agur hunkigarria jaso zuen Dubak. Hurrengo ikasturtean ere hemen egonen

delakoan gaude.

Bestalde, beste saharar bat etorri zaigu uda pasatzera herrira, Saharaztan taldearen bidez. Muna du izena eta Lizartza bordan pasako du uda. Ekainaren 29an etorri zen eta gure artean egonen da udako oporretan.



ARGAZKIA: FERMIN ETXEKOLONEA

## Birziklatutako materialekin jokoak

Helduek zein haurrek ederki pasatu zuten ekainaren 21ean birziklatutako materialekin egindako jokoetan. Kataluniatik Bilborako bidean egin zuten geldialdia Kataluniako Guixot de 8 taldeak herrian eta gisa askotako jostailu eta jokoekin gozatzeko aukera eskaini zuten. Herritarrak gustura gelditu ziren.

## HONDAKINAK

## Hiri hondakinen egutegiaren zozketa

### ttipi-ttapa

Birziklapenaren inguruko hainbat aholku emanez, Baztan, Bortziriak eta Malerrekan, Hiri-Hondakinen Mankomunitate edo udalen eskutik urte hasieran banatu ziren egutegiek zeramaten zenbakien zozketa egin zen ekainaren 30ean Donezteben. Hain zuzen, irailean bi lagunentzako Kanariar Uharteetan aste bateko egonaldiaren zozketa. Hiru zenbaki atera dira: 5.176; 6.283 eta 7.100. Sarritua zenbaki bakarra da, 5.176a, eta lehendabiziko zenbaki hori agertzen ez bada, bigarrenak eramanen du saria, 6.283ak eta bertzela, hirugarrenak, 7.100ak. Hiru kasuetan, uztailearen 31 baino lehen deitu beharko da Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitateko 948 635254 telefonora.

**APARAN, S.A.**  
BIBKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta berrizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 458 080  
Fax: 948 450 334  
DONEZTEBE

**Behetik**  
AULKI JASOTZALEAK

Añorgatik 14  
Tel: 943 368 781  
671 073 688  
behetik@behetik.com  
www.behetik.com  
20018 DONOSTIA



## ITUREN

# Merezitako omenaldia eskaini diote aurtiztarrek Unai Apeztegiari

Egun berean, duela urte batzuk Sanjuan bezperan egiten zen besta berreskuratu zen

### Arkaitz MINDEGIA

Duela urte batzuk berendu-afaria egiten zen Sanjuan bezperan Bete-neko atarian eta gero, Dantza Luzea dantzatzen zen. Aurten ohitura hori berreskuratu nahian Aurtizko gazteek afaria eta besta antolatu zuten ekainaren 20rako.

Afaria aitzakiatzat hartuta, aurtiztarra den Unai Apeztegia pilotari ohia omenaldi xume bat egin zitzaion. Herriko neska gazteek karrizk karrika buelta eman zuten trikitixa eta pandero soinu artean, omenaldiaren hasiera adieraziz. Gero pilota partida berexi batek izan zuen segida. Unai Apeztegiak jokatu zuen bere pilotari ibilbidean lagun izan dituen pilotari batzuekin. Apeztegia eta Apeztegia, Arraztoa eta Otxandorenaren kontra aritu ziren. 22ra ailegatzeko lehenak Unai eta Apeztegia goizuetarra izan ziren, eta halako batean, sorpresaz, joare soinuak entzun ziren.



Unai Apeztegiaren omenaldiko momentuak.

ARGAZKIA: OIHANA MINDEGIA

Aurtizko joaldunak hantxe agertu ziren frontoian. Joaldunak euren itzulia egin zutenean, aurrekoa dantzatu zuten Kepak eta Bidanek.

Frontoiko ikuskizuna bukatu ondotik, denak elkartera joan ziren. Elkarrekin leporaino betetzen, 75 lagun inguru bildu baitziren. Afaria buka-

tzear zela, Oihana Mindegia eta Oihana Elizaldek trikitixa eta panderoa hartu eta eurek presaturiko bertsoa kantatu zuten elkartean zeuden

jende guziaren laguntzarekin. Besta arrunt giro onean joan zen, goizaldera arte aritu zen Joxe Angel akordeoilaria besta alaitzen.

### Sanjuan suak

Beste herrietan bezala, Iturenen eta Aurtizten haur, gazte eta helduak Sanjuan suak egin eta, ordura arte ederki gordeak zituzten paper eta kartoiak sutara bota zituzten. Joan den urtean bezala, Iturengo plazan Ibintza Kultur Taldeak antolatuta berendu-afaria egin zen, suaren aitzakiarekin denak batera afaldu eta suan saltoka ibiltzeko. Erran, halaber, Iturengo joaldunak Arizkongo bestetan egun honetan egiten den antzerkian parte hartu zutela.

### Maika Ariztegi

Ekainaren 21ean Donoztebeko herri krosa jokatu zen, eta emakumeetan lehen postua Maika Ariztegi lortu zuen.

## SALDIAS

# Joan dira aurtengo Sanjoanak ere

Endika Urrutia erremontelaria profesionaletan hasi da

## Markel eta Eneko

Dotore pasatu ditugu aurtengo Sanjoanak. Bost egun izandu dira jai, bost egun atsedean egun batenekin, astelehenean ez baitzen bestarik izandu. Jendeak belarrari edo gorputzari buelta emateko aprobetxatu zuen eguna. Ederki joan ziren lagun arteko afariak, musa, pilota partidak, plater-tiroketa, musika, haurren eguna eta bezperako suak.

Sanjoan Eguneko herri bazkariarekin biribildu ziren bestak. Leporaino bete zen ostatua, eta, bazkalondoan, jendea fuerte aritu zen kantari Modesto aranztarrak lagunduta. Gainera, bertsoan egitera etorri ziren Patxi Etxeberria eta Joxe Agirre *Oranda*. Oraindik sasoiaren daudela erakutsi zuten. Hona hemen

horren seinale, bertso pare baten akabilak:

Patxi Etxeberria:  
*...lehen banekin, bai, baina gaur ere harritzen nago jarria; ez da bilatzen erreza orain hola biltzen dan herria.*

Joxe Agirre:  
*...baina Saldiasen gauza txarrikan lehendik ez nuen espero; herri txikirik ez da izaten hola elkartu ezker.*

## Pilota kontuak

Apustu soinuak izandu ditugu herrian. Garagarrilaren 26an, pilota desafioa egin zuten Auzan. Alain Ezkurra eta Unai Urrutia aritu ziren Joseba Pikabea aranztarrak eta Gorka Osinaga ultzamarraren kontra. Otordua zuten jokoan. 22 eta 18 irabazi zuten



ARGAZKIAK: ENEKO

Sanjoan bezperan, gazteek plazan afaldu zuten, eta, ondotik, *sarnafuera* egin zuten herritarrek.

saldiastrarrek. Erreban-txaren esperoan gelditzen gara.

Doneztebeko Sanpedroak zirela eta, erremon-te partidak izandu ziren garagarrilaren 29an. Han aritu ziren herriko Urrutia eta Baleztena, eta 30 eta 19 irabazi zieten Ezkurrari eta Olazarri.

Aste honetan, berriz, Sanfermin bezperarekin, profesionaletan hasi da Endika Urrutia. Uharteko Euskal Jai Berrin egin du estreineko partida 18 urteko aurrelariak Josu Baleztenarekin, Urtasun hasi berriaren eta Olazarren kontra. Beste babetan emanen dizuegu partida horren berri. Ze-

resana eman dezala mutil honek.

Kontuan edukita Endikaz aparte lehendik Mielmari Urrutia saldiastarra eta Josu Baleztena erdi saldiastarra profesionaletan ari direla, dagoeneko hiru erremontelari daude, eta lau garren bat falta dute partida egiteko herrian.



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerrika S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA



## URROTZ

### Uda honetan ere bisita gidatuak egingen dira Leurtzako Urtegietan

Bertzalde, piragua eta ontzietan ibiltzea debekatu dute

**Joseba URROTZ**

lazko udan hasitako proiektuari segida emanez, uda honetan ere Leurtzako Urtegieta natur eremuan bisita gidatuak antolatu dira. Bertizko Partzuergoaren ardurapean eta Beintza-Labaien eta Urrozko Udalen laguntzarekin. Astean behin izanen dira (ortziral edo igandean, astearen arabera) eta ordu bat eta erdiko iraupena izanen dute, beti ere, goizez. Bisiten gidaria Pello Iriarte iruritarra da.

Proiektuak Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du eta bisitaren prezioa laguneko bi eurokoa izanen da. Informazio gehiago: Bertizko Partzuergo Turistikoa

(948 592323 edo [bertiz@consorciobertiz.org](mailto:bertiz@consorciobertiz.org))

#### 30.000 LAGUN 2008AN

Joan den urteko datuen arabera, 30.000 lagun inguruk bisitatu zituzten Leurtzako Urtegiak 2008an, aitzinekoan baino zertxobait guttiagok. Eguraldiak ez zuen sobera lagundu, baina halere, bazter goxo honek jende ugari erakartzen du.

#### ELBARRITUEN IBILBIDEA

Behetik urtegiaren inguruan elbarrituentzako bi kilometroko ibilbidea egokitu da: pertsona itsuentzako ezkerreko egurrezko karrilaren eta *braille*z idatzitako seinaleen bidez; mugikortasun arazoa dutenentzat,



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

#### Mugakosoroko itxola egina

Dagoeneko akitua dago Plan E delakoaren laguntzaz egin behar zen lana. Bertze ale batean erran bezala, Mugakosoron dagoen itxola bota eta berria egin beharra zen. Espainiako Gobernuak paratutako duen epemuga baino lehen akitu da, eta argazkian ikusten den bezala, dotore gelditu da, gainera. Uso ehiza garaian ehiztariek erabiliko dute, eta gainerakoan, edozeinentzat egonen da erabilgarri.

aldiz, maldak ttikitu eta zokaloak eta hesiak paratu dira tarte gehiengan.

puzgarriak erabiltzen ahal izanen dira.

#### SUAREN DEBEKURIK EZ DA ESPERO

Negua luzea eta hezea izan denez, seguraski Ingurugiro Sailak ez du aurten ere sua egitea debekatuko. Iaz, Nafarroa bi eremutan banatu zen sute arriskuen arabera, eta Leurtzako parriletan sua egitea baimendu zen.

#### Herriko langileak lanean

Aitzinetik aipatu bezala, uztailarekin batera hasi ziren hiru langile herriko hainbat lanean, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ematen duen dirulaguntzaren bidez. Herriko bi gazte ari dira laguntzaile bezala, eta ofiziala bertze herri batekoa da. Lanen emaitzak aitzinerago ikusiko ditugu.

#### PIRAGUAK ETA ONTZIAK DEBEKATUAK

Orain arte piraguetan eta ontzietan ibiltzeko ez da inolako arazorik izan, baina aurten, Ingurugiro Sailak debekatu egin ditu, desagertzeko arriskuan dagoen espezie bat babesteko. Ontziak eta piraguak debekatu arren,

## BERTIZ

### Eskualdea ezagutzeko bisita gidatuak egingen dira egunero udan

Bertizko Turismo Partzuergoaren apustu nagusia izanen da eta gidari bat kontratatuko du horretarako

#### ttipi-ttapa

Goi denboraldiari ongi etorria eginez aurkeztu zituen Bertizko Turismo Partzuergoak udan martxan paratuko dituen zerbitzuak. Baztango Udaletxean emandako agerraldian Martin Garde presidenteak eta Izaskun Goñi kudeatzaileak

jakinarazi zuten.

Urte osoan irekita dauden turismo puntuez gain, udan, urtero bezala, Baztango informazio turistikorako bulegoa ireki da Arizkunengan. Informazio turistikoa aste osoan emanen da, goizez eta arratsaldean. Turismo informazio bu-

lego berri bat ere zabalduko da aldi honetan: Ur-dazubin. Monastegiaren sarreran kokatua egonen da, berriki inauguratu den museoan. Bulego hau aste osoan irekia egonen da, astelehenetan izan ezik.

Aurten, Bertizko Turismo Partzuergoaren



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

#### Martin Garde eta Izaskun Goñi aurkezpen egunean.

apustu nagusia bisita gidatuak izanen dira. Iazko esperientzi pilotorearen ondorekin, uztail eta abuztu honetan, gidari kontratatu baten bidez egunero, goizez eta arra-

tsaldean eskualdeko hainbat tokitara bisita gidatuak eskainiko dira.

Informazio gehiagorako eta erreserbatzeko 948 592323 edo [bertiz@consorciobertiz.org](mailto:bertiz@consorciobertiz.org).

## ARANO

# Santio bestak uztailaren 18an, 19an eta 24tik 26ra

Santio Egunean, pilota partidak, herri kirolak eta bertsolariak izango dira.

## Larunbata 18

**17:30ean** herriko pilota txapelketako finalak.

## Igandea 19

Garai bateko kotxeen VIII. igoera. **11:30ean** irteera Donostiako Xanti hoteletik. **14:00etan** Aranoko plazara ailegatuko dira. **Arratsaldean** kotxeak herriko plazan egongo dira jendeak ikusi ahal izateko.

## Ostirala 24

**18:00etan** udaltekoko balkoitik jaiei hasiera emango dien suziria. **Ondoren** poteoa. **18:30ean** feria herriko plazan: herriko IV. Patata Tortilla Lehiaketa. Herriko produktuak gozatzeko aukera: gazta,

sagardoa, gozoak... Herriko eskulangileek beraien lanak erakutsiko dituzte. **22:00etan** XXVII. Mus Txapelketa azkarra.

## Larunbata 25 Santio Eguna

**10:00etan** diana. **11:00etan** Meza. **12:30ean** pilota partida Arano eta Goizuetako afizionatuen artean: Zabala-Legarreta (Arano), Zabaleta-Apezetxearen (Goizueta) kontra. **18:00etan** herri kirolak: Iparraldeko jokoak eta aizkolariak (Nazabal eta Arrospide). **Ondoren**, bertsolariak: Julio Soto, Igor Elortza, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze. Gai jartzailea: Xabier Legarreta. **22:00etan** ohiko oilasko jatea San Roke elkartearen.



ARGAZKIAK: MAIDER ANSA

**Aurten ere artisau azoka eta bertako produktuak dastaketako aukera izango da, suziriaren ondoren.**

**Ondoren** KUELA taldearekin dantzaldia goizaldera arte. Herriko festen aldeko rifen zozketa egingo da. **Goizaldean** baratxuri zopa.

## Igandea, 26 San Juakin eta Santa Ana

**10:00etan** diana. **11:00etan** Meza. **Ondoren**, hamaiketako Kontzejun. **12:00etan** pilota partidak gazteen artean: Noble-Agirre-

zabala, Manterola-Hernaniren aurka. Lopez-Elortza, Lujanbio-Murgioldoren aurka. **14:00etan** jubilatuen bazkaria Kontzejun, Joxe Agirre eta Imanol Lazkano bertsolariekin eta Jexuxen Jazbanarekin. **15:30etik aurrera** umeentzako puzgariak eta jokoak plazan. **18:30ean** txokolatada. **19:00etan** Arno gaudetegiko animalien ikuskizuna. **20:30ean** parrillada. **Ondoren**,

OSKAR ESTANGA ariko da musikarekin ilunabarra girotzen.

### Oharrak:

Oilasko jaterako txartelak herriko tabernetan jarriko dira salgai. Azken eguna: uztailaren 19a.

Jubilatuentzat: bazkarirako izena Kontzeju tabernan eman behar da. Horretarako azken eguna: uztailaren 19a.



**Aranoko Udalak**  
jai zoriontsuak opa dizkizue  
herritar eta bisitari guztiei

## Benta Berri jatetxea

urria arte larunbatetan irekia eta atsaldetan itxia  
SUKALDARITZA TRADIZIONALA

T. 948 514 018 • Urumea • ARANO

Etxeko Ardi Gazta

**LIZUN**  
GAZTANDEGIA

Petxenekoborda • SUNBILLA • Tel: 948 450 862



## ARANO

# Sanjuan inguruko sardina jatea egin zen ekainaren 20an

Giro ederrean joan zen

### Ainhoa ANSA

60 bat lagun elkartuko ziren ekainaren 20ko ilunabarrean, Kontzeju atarian, sardina jatera. Urte batzuetan galduta egon den ohiturari erantzunez, Mairtzeneako Jose Antonio Legarretak lau bat urte eramango dituela festa hau antolatzen. Baina aurtengoak beste urteetakoak gainditu duela esan du. Lau urtetan izandako jende kopuru haundiena elkartu zen.

Hala ere, antolatzen ibili ziren herritarrak pozik daude egindakoarekin, eta jendea ere arrunt gustura gelditu zen prestatutako afariarekin.

Sardina jatean, ize-nak ongi adierazi bezala, nahikoa sardina izaten da nahi duenarentzat, eta ondotik, Ezkerrenbordako gazta izan zen aurten postretarako. Girotze lanetan ere aipatu behar da afaltzera hurbildutako lagun ba-



ARGAZKIA: AINHOA ANSA

**Jende dezente hurbildu zen sardina jatean eta ondoren eskaini zen *Aupa Etxebeste* filmean adi-adi egon ziren bildutakoak.**

tzuen eskutik aditu zen trikiti soinuarekin. Inprobisazioak horrelakoetan bere tokia izaki, Juanikeneko Mainerren trikitixa berehala ekarri zieten eskuetara inguruak soinu txikiz alaitzeko eskatuz. Afal ondoren, berriz, *Aupa Etxebeste* pelikula jarri zuten Elkarteko arku-

peetako paretan eta herritar multzo bat elkartu zen filmea ikusteko, gauerdira arte. Berdosnetako Mila eta Etxaundiko Joxeaneke proposatutakotik atera zen ideia eta haien lagun batzuei esker ikusi eta entzun zen hain ongi. Hurrengo batean, bi hauek

parte hartu duten labur bat ere jarriko dutela aurreratu zuten.

Festa borobildua gelditu zen eta ongi merezitako eskerrak ematea gelditzen zaigu hementik, festa horren antolaketan eta laguntze lanetan ibilitako herritar guztiei. Segi horrelaxe!

### Banako tutoretza zerbitzua

## Zeure enpresa kudeatzeko laguntza behar al duzu?

- Marketinga eta bezeroaren arreta
- Giza baliabideak kudeatzea
- Kontabilitatea
- Finantziak
- Zerga sistema eta abar

#### Nori zuzendua

Zerbitzua Nafarroako mendialdeko enpresa txiki eta ertainen zuzendua dago, enpresok 15 langiletik behera izan behar dute eta bi urtetik gorako jarduna izan behar dute.

#### Prezioa

116€ (BEZ barne).

#### Noiz

2009ko uztaila-urria.

Harremanetarako:  
Irene Gastaminza  
948 10 18 04  
lgastaminza@cederna.es

BATERA FINANTZATZEN DUTE / COFINANCIAN



2012 CONTIGO AVANZAMOS



### Servicio de tutorías individualizadas

## ¿Necesitas apoyo para la gestión de tu empresa?

- Marketing y atención al cliente
- Gestión de recursos humanos
- Contabilidad
- Financiación
- Fiscalidad...

#### Dirigido a

Pymes ubicadas en la montaña navarra que tengan menos de 15 empleados y más de dos años de actividad.

#### Precio

116€ (IVA incluido).

#### Fechas

De julio a octubre de 2009.

Contacto:  
Irene Gastaminza  
948 10 18 04  
lgastaminza@cederna.es

SUSTITUTZEN DU / PROMUEVE

**Cámara**  
Navarra

## GOIZUETA

# Egurraren krisiak egoera ekonomiko larrira eraman lezake Udala

Nafarroako Gobernuaren atentzio eza salatu zuen alkateak prentsaurrean

## Esteban AROTZENA

Eskualde guziko hainbat udalen bozera maile gisa, Mieljoxe Lekuonak prentsaurrekoa eman zuen Iruñean ekainaren 26an, egurraren krisiak udal haue-tan duen eraginaz hitz egiteko.

Nafarroako hedabideen aurrean gure herriko alkateak esan zue-nez, Goizuetako Udala-ren diru-sarreraren %60a menditik zetorren sektorea krisiak jo duen arte. Krisia areagotu egin da, gainera, Frantziako Landetan ilbelteko haizeteak milioi-ka pinu bota zituenetik. Errentagarria izateko gutxienez 30 eurotan gosaldu behar omen da intsinisaren metro kubikoa, baina Landetako 15ean saltzen ari

omen dira lurrean dau-denei irteera emateko. Konpetentzia ezinezkoa da, beraz.

Lekuonak esanda-koaren arabera, Lan-detako produktoreak Frantziako Gobernuaren dirulaguntza jasotzen ari dira. Gure eskualdeko udalek, berriz, elkartzeko eskaera luzatu zioten aspaldi samar Begoña Sanzberro Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta In-gurumen kontseilariari, baina ez dute oraingoz erantzunik jaso.

Arazoari aurre egi-teko kaltetu guztien in-darrak batzearen be-harra azpimarratu zu-ten prentsaurrean. Goi-zuetak, Leitzak eta Bor-tzirietako udalek bat egin dute deialdi hone-kin.



## Baialtzinikin...

Zaborren mankomunitatea sortu berri dutela Goizuetan, Arano, Leitzan, Areso, Larraun eta Lekunberriko udalen artean?



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

**Etorkizuneko pilotari haundiak garaipenez garaipen**  
Txapelketaz txapelketa ibili dira azken aldian ere herriko pilotari gazteak, eta tartean txapel batzuk ere eskuratu dituzte. Ekainaren 20an, esaterako, Errenteriako txapelketa jokatu zuten Antton Apezetxeak eta Iker Salaberriak, eta 18-9 irabazi zieten Balerdi eta Alberdi azpeitiarrei. Ekainaren 26an, berriz, Hitza txapelketa jokatu zuten Iker Salaberriak eta Bidaniko Joseba Zinkunegik, eta aurreko emaitza berdinarekin gailendu zitzaizkien Ordiziako Zubeldia eta Bergantinosi. Biharamunean, Barañaingo txapelketan beste garaipen bat eskuratu zuten Antton Apezetxeak eta Iker Salaberriak. 18-11 irabazi zieten Txarutako Irazoki eta Gaskueri. Ekainaren 28an, Josetxo Ezkurraren Memorialeko finalak jokatu ziren Donezteben, eta Umeak B mailan, Aitor Aizkorbe eta Mikel Apezetxeak 18-11 irabazi zuten Lesakako Otxoteko eta Agirreren kontra. Umeak A maila, azkenik, Antton Apezetxea eta Iker Salaberriak 6 tantotan utzi zituzten Igantziko Mitxeko eta Telletxea.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

## Izango al da asteroko azokarik?

Argazkian ikus daitekeenez, erantzun beroegirik ez du jaso deialdiak oraingoz, baina herrira hurbiltzen diren saltzaile ibiltari guztiei astearte goizetan etortzeko esaten hasia da Udala. Egitasmoa gauzatuko balitz, azoka polit bat izanen litzateke astero.

## CAMELOT PARK

2 SARRERA

BIDALI ttipi saskia

5767



## ARESO

### Giro ederrean joan dira Sanpedroetako ospakizunak

Etkez etxeko eskea, afariak, musika... Denetarik izan da

**Juana Mari SAIZAR**

Beste hainbat herritan bezala, gurean ere Sanpedro jaiak ospatzeko ohitura dago eta herritarrek aurtengoan ere ez zuten hutsik egin. Eguraldi ederrak lagunduta, giro bikainean joan ziren. Baserrietako eta herriko etkez etxeko eskea, herri afaria, musika, meza nagusia... Gisa gutzietako ekitaldiak izan ziren. Dagoeneko jendea hurrengo urtekoen zain geratu da.

#### Ludoteka abian

Uda honetan ere, neska-mutikoentzako ludoteka zerbitzua martxan jarri da. Kasu honetan, Ainara eta Amaia leitzarrak izan dira aukeratuak eta beraiek izanen dira gaztetxo

en dira gaztetxo arduradunak. Abuztuaren 7a arte egongo da zerbitzua zabalik, goizero bi orduz. Tarte horretan hainbat jardueratan arituko dira umeak.

#### Areso sokatiran

Lur gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketak aurrera segitzen du eta Aresoko mutilek ere lanean jarraitzen dute. 680 eta 640 kiloko kategorietan hirugarren postua lortu zuten, eta orain 600 eta 580 kiloak gelditzen zaizkie. Larunbat honetan, uztailak 11, 580 kiloko txapelketako jardunaldia jokatu dute Goiherriin (Bizkaia); uztailaren 19an, 600eko finala Mutrikun (Gipuzkoa); uz-



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Gazteek ederki pasatu zituzten Sanpedroak.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

#### Sanjuan sua

Ohiturari jarraituz, ekainaren 23an afaria egin zen plazan, bakoitzak etxetik zerbait eramanda. Behin tripa beteta, Sanjuan suak piztu ziren, bat txikia eta bestea handiagoa eta herritarrek han ibili ziren batera eta bestera saltoka.

tailaren 25ean 580koen (Bizkaia) eta biharamundean, uztailak 26, 580koen azken saioa Gaztelun (Gipuzkoa).

atzetaroi finak  
 albornoak  
 edredoi nordikoak  
 ohe estalkiak  
 mainalreak  
 mantelak  
 kusinak  
 toailak

**1951tik lentzeria-etxea**  
**Casa Cambra**

**udako merkealdiak**  
 Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

## LEITZA

# Atekabeltz Gaztetxeak laugarren urteurrena ospatuko du uztailaren 25ean

Goizetik gauera arte ekitaldiak izanen dira

## Asier IMAZ

Kuartela zena gazte-  
txe bihurtu zela lau urte  
igaro dira dagoeneko.  
Gazteek auzolanean  
egindako lanaren emaitza  
izan zen Atekabeltz  
Gaztetxea, eta orain, lau  
urte beranduago, urteu-  
rrena ospatzeko ekital-  
diak antolatu dituzte uz-  
tailaren 25erako. Goizean,  
11:00 aldera frontenis  
txapelketako finalak  
jokatuko dira. Eguerdian,  
bazkaria izanen da Gaz-  
tetxean bertan. Aipatu,  
bazkarirako sarrerak Tor-  
rrean daudela salgai.  
Bazkalondoan, berriz, ka-  
lejira izanen da Iruñeko  
Elektrotzarangarekin eta  
gauean kontzertuak.

## Dirulaguntzak

Udalak Leitza, Areso,  
Arano, Goizueta, Araitz,  
Betelu, Larraun eta Le-  
kunberriren izenean aur-  
keztutako hiru proiektuei  
dirulaguntza eman die  
Nafarroako Gobernuak.  
Biomasaren azterketa,  
auditoria energetikoa udal  
eraikinetan eta argiteria  
publikoan eta konpostaje  
etxe eta eskoletan.  
Hiru horiek dira suben-

tzioa jaso duten proiektu-  
ak.

Auditoria energetikoa  
egitearen helburua energia  
aurreztea da eta horretarako  
38.396 euroko proiektua  
aurkeztu zuten aipatu udalek.  
Dirulaguntza, berriz, 15.358,4  
eurokoa izan da.

Etxeetan eta eskolan  
konpostajea bultzatzeko  
proiektua ere bideratu zuten  
Mendialdeko udalek,  
konpostajearekin proba  
pilotu bat eginez, hondakinak  
murriztu eta birziklapena  
indartzeko. Kasu honetan  
proiektuak 24.482,30 euroko  
aurrekontua zuen, eta lagun-  
tza 9.752,92 eurokoa da.

Azkenik, biomasaren  
dago. Inguruan baso  
asko dagoela eta, bioma-  
sa energia berriztagarri  
gisa erabiltzea proposatu  
zuten udalek, ingurumen-  
erako onuragarria izateaz  
gain, ekonomiko-ki ere  
eskualderako errentagarria  
izanen delakoan. Aurkeztu-  
tako proiektu hau ere onartu  
zaie, eta 39.500 euroko  
aurrekontua duen proiektu-  
arentzat, 15.800 onartu  
dira.



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

## Udako Tailerrak urarekin jarri dituzte martxan

Abian dira Udako Tailerrak eta Haur Txokoa *Udan ez gelditu etxean* lelopean. Ekainaren 30ean *Aire, aire!* ekimenaren baitan, haurrak urarekin jolasean ibili ziren Erleta eskola inguruan. Udako giroan murgiltzeko eta eskola amaiera ospatzeko antolatuta zuten hilaren 3ra bitarte *Aire, aire!* egitasmoa. Haurrek pozarren hartu zuten ideia. Orain, berriz, Sukaldean Esperimentatu tailerraren txanda da, ostiralean bukatuko dute. Usaimena, zaporea, ikusmena, ukimena... lantzen ari dira, beti ere sukaldearen inguruan.



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

## Mallorcara joateko erreka garbitzen

Amazabal Institutuko azken urteko ikasleak erreka garbitzen aritu ziren ekainaren 25ean. Hortik bi egunetara Mallorcara joan ziren ikasbidaian astebeteko egonaldia egitera. Bidaia ordaintzen laguntzeko Udalarekin jarri ziren harremanetan eta honek laguntza eskaini zien, erreka garbitzearen truke.



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

## Ikasturte amaierako joko eta poza

Erleta eskolako ikasle guztiak jaia ospatu zuten ekainaren 19an. Arrazoia? Ikasturte amaiera. Margo eta joko artean agurtu zuten neska-mutikoeek ikasturtea. Guraso Elkarteak antolatutako hamaietakoia ere gustura hartu zuten.

gaztelu scl  
iturgintza  
kalefakzioa • saneamendua • gasa  
Telefonoa: 948 510 056 • 948 510 156  
Faxa: 948 510 856  
LEITZA



## BAZTAN

# Foru komisaria Elizondon ez egiteko aukera legalak aztertuko ditu Udalak

UPNren «faltsukeria eta jarrera aldaketa lotsagarria» salatu ditu NaBaik

### ttipi-ttapa

Elizondoko Baztan-berri auzoan Foru Poliziaren komisaria egiteko Nafarroako Gobernua-  
ren Barne Sailarekin sinatutako hitzarmena ezeztatzeko aukera legalak aztertuko ditu Udalak. Honela aipatu zuen uztailaren 1ean, Batzar Nagusi gorabeheratsua-  
ren ondotik, Udalean gehiengo duen NaBaik. Adierazi zuten, aholkularitza legala eskatu-  
ko dute akordioa baliorik gabe uzteko izan daitez-  
keen bideak aztertzeko, eta aukera horien artean, berraztertze-  
ko errekursoa dago. Honen guz-  
tiaren gibelean, «UPNk argitara ematen duen Baztan Informacion bo-  
letinean agertu duen ja-  
rrera aldaketa lotsagarria eta faltsukeria» dago. Boletin horretan, komisa-

riaren kokapena Udala-  
ren ekimena dela para-  
tu du UPNk: «Udalak li-  
breki eman du partzela  
hori, eta horregatik erai-  
kiko da komisaria Eli-  
zondon». Beti ere, UPN-  
ren idatziaren arabera,  
«Komisariaren kokape-  
nerako bertze aukera ba-  
tzuk ere kontuan hartzen  
zuten Gobernuak, baina  
Udala izan zen aitzina  
hartu zuena lurzati hori  
uzterakoan».

NaBaiko zinegotziak  
sutan daude UPNkoekin,  
«ez ditugu ulertzen, orain  
arte ados egon baitira eta  
orain desmarkatu egin di-  
ra». Beraz, «prozesua  
geldiarazteko formula bi-  
latzeko gure zerbitzu ju-  
ridikoak kontsultatuko di-  
tugu». UPNren jarrera ez  
ezik, bizilagunek proiektu-  
aren kontra egindako  
agerraldiak ere kontuan  
hartzen dituztela aipatu



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Plenoa hasi aitzinetik, baztandar hauek protesta egin zuten udaletxe atarian.



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

### Jaime Urrutia karrikaren bigarren zatia zabalik

Jaime Urrutia karrikaren bigarren zatia zolaberritzea lanak akitu dira, eta emaitzarekin gustura daudela aipatu dio Virginia Aleman alkateak Ttipi-Ttapani, «arras polita gelditu da». Arizkunenea Kultur Etxearen parean hasi eta Osasun Zentrora bitarteko bidea espaloia-  
ren altuera altxatu eta oztopo arki-  
tekonikoak kendu ditu Mariezkurrena enpresak. Bigarren zatiko obrak akitu-  
ta, Ziga Plazatik Osasun Zentrora bide osoa eraberritua gelditu da.

zuten. Gobernuak koka-  
pen honen alde egin ba-  
du ere, Batzar Nagusia-  
ren ondotik, UPNko zi-  
negotzkie uztailaren 22ko

plenoan «kokapen horren  
kontra bozkatzeko prest»  
daudela adierazi zuten.  
Batzarrean, Baztan-  
berriko auzotar aunitz bil-

du zen, bertzeak bertze,  
Ez egin gauzak altxape-  
an, Entzun herriari! Ko-  
misariarik ez zioen pan-  
kartarekin.

**ANZABAL**  
AGENTZIA



- **Zurich Asegurak**  
Autok, etxebizitza, itxipu eta birtze asegurak
- **Lan aholkularitza**  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**  
Errenta Deklarazioa, IRZA...
- **Inmobiliaria**  
Baserri, bontia, pisu, etabi... salmenta eta alokaria
- **Gastoria**  
Bilgaituen transferentziak, goletzako karretaren berritzea eta etxeen gasako gestioak

Santiago, 15 - ELIZONDO  
Tfnoa: 948 580 804  
anzabal@anzabal.com



**ANTXITONEA**  
Trinketea

Jatetxea - Ostaturia  
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte karrika  
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

## BAZTAN

# Baztandarren Biltzarra besta haundia uztailaren 19an egingen da

Ohiko ekitaldiak izanen dira: artisau azoka, orgen desfilea, bazkaria eta dantzaldia

## ttipi-ttapa

Gutti gelditzen da baztandarren besta haundirako, astebete eta egun batzuk bertzerik ez. Uztailaren 19an, igandearekin, hain egun berezia den Baztandarren Biltzarra besta egingen da. Urtero bezala, Elizondoko karrikak jendez, musika eta kolorez beteko dira.

Goizean, artisauak izanen dira ospakizunari hasiera emanen diotenak. 10:00etan artisau azoka zabalduko da eta 14:00etara bitarte Pedro Axular kalean egonen dira, produktuak eta tresnak erakusten eta saltzen. Halere, ikuskizun haundiena orgen desfilearekin hasiko da. 11:00etan abiatuko dira herrietako karrozak eta Elizondoko karrike-

tan barna ohiko itzulia egingen dute: Galartza jatetxearen parean abiatu eta Baztan Ikastola-ko parkeraino joanen dira, handik beheiti hartu eta Jaime Urrutia karrikan barna udaletxeraino joanen dira. Ibilbideari hor emanen zaio akabera.

Orgen desfilearen ondotik, 14:00etan bazkaria izanen da Merkatuzelain. Bazkalondoan karrozen desfileko eta kartel lehiaketako sariak banatuko dira. Ilunabarrean, berriz, Trikidantz taldearekin segituko du bestak.

## BEZPERAN GAUPASA

Egun haundia igandea bada ere, besta giroa bezperatik somatuko da Elizondon. Aurten Laiotz taldearekin dantzaldia izanen da.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

## Etorkinendako baliabide gida eta etorkinei harrera egiteko gida aurkeztu dira

Udalak eta Bidelagun elkarteak, Udaleko Inmigrazio programa bultzatzeko hitzarmena sinatu zuten ekainaren 30ean. Horretaz gain, etorkinendako baliabide gida eta etorkinei harrera egiteko gida ere aurkeztu zituzten. Ekitaldian, Martin Garde zinegotzia; Elena Urtasun gizarte langilea eta Raul Lopez, euskara teknikari izan ziren, Bidelagun elkarteak Isidro Herguedas koordinatzailearekin batera. Udalaren datuen arabera, Bailaran 504 etorkin bizi dira: populazio osoaren %6,45. Horietatik 242 Europatik etorriak dira, 220 Amerikatik eta 40 Afrikatik. Gehienak, 347, Elizondon bizi dira. Udaleko Inmigrazio Programa bi erronkei aurre egiteko sortu da: batetik, beharrezko daudenak zaindu eta laguntzeko, eta bertzetik, elkar ezagutzeko pausoak ematen segitzeko. Aurten 22.000 euroko dirulaguntza jaso du Udalak Nafarroko Gobernutik eta Bidelagun elkartearekin sinatutako hitzarmenaren bidez, zenbait ekimen antolatuko dira. Hala nola, bideo lehiaketa egingen da 3. eta 4. mailetako gazteekin inmigrazioaren fenomenoaren lantzeko, Bertzearen larruan jarri izenburuarekin. Kulturarteko astea antolatuko da, baita Bertze kulturak ulertzen ikastaroa ere. Biorriko bat ere prestatu da, etorkinen seme-alabei eta familiei zuzendua, jakin dezaten zer ekintzetan parte har dezaketen. Baztandarren Biltzarrean karroza bat prestatzeko asmoa ere badute. Gidak etorkinei ere zuzenduta daude, beren integrazioan laguntzeko; eta bertakoei begira, gako kultural batzuk ematen dira, bertzelako kulturetatik etorritakoak hobeki ulertzeko. Informazio gehiago [www.bidelagun.com](http://www.bidelagun.com) eta [www.baztan.es](http://www.baztan.es) web orrietan eskuragai dago. Liburutxoa Baztango etxe guztietan banatuko da.

## Zigaren museoa

Elizondoko museo etnografikoan eraikitzekeoa den Jabier Zigaren museo lanak laster hasi-

ko dira. Horrela iragarri zuten Martin Garde kulturazinegotziak ekainaren 30ean eskualdeko bisita gidatuak aurkezteko

egindako agerraldian. Lanak «hiru hilabete eta bi aste» baino gehiago ez direla luzatuko gaineratu zuten.

Okindegia	Jatetxea
<b>Uxoa</b>	
	
OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan) Especialitatea parrillan erretako jakietan Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea, goxo goxoa!	
Ordoki Industriaidea Tfnoa: 948 453 403 31713 ARIZKUN	

# FANTXIKE



**Baztandarren biltzararako ongi pastu!!**

baserritar jantzetan aukera zabala



**BAZTAN**

## Francisco Joaquin Iriarte zahar-etxea IDEA enpresaren esku

Langileen Batzordea privatizazioaren aurka azaldu da

**ttipi-ttapa**

IDEA Innovacion y Desarrollo Asistencial enpresa da Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte zahar-etxearen arduradun berria, patronatuko batzordeak hala erabaki baitzuen aho batez ekainaren 17an. IDEA Nafarroako enpresa da eta Udalaren hitzetan, «laguntzaren kalitateko eta berrikuntzako eredu baten alde egiten du lan, gizartearendako osasun laguntzaren alorrean».

Ez dira, ordea, uste berekoak langileak. Privatizazioaren aurka azaldu da hasieratik Langileen Batzordea (ELA eta LAB), «ezin delako Baztango erai-kin historiko bat irabaziei begiratzen dien enpresa baten esku utzi».

Batzordeak erabakia hartzerakoan zera hartu du kontuan: «enpresak adinekoak zaintzeko alorrean, laguntzaren kalitatean eta berrikuntzan Nafarroa iparraldean eredugarri bihurtu nahi duela». IDEAk «aitzineran eramanen dituen erronken artean» hauek nabarmendu ditu: «zahar-etxea moldatzea Autonomia Pertsonalari buruzko legeak ezarritako eskakizun eta



ARGAZKIA: ZIURTAGIRIAREN ELKARTEA

**55 entitatek Bai Euskarari Ziurtagiria jaso dute**

Baztango 55 enpresa, saltoki eta gisa guztietako entitatek Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu zuten ekainaren 27an egindako ekitaldian. Horietatik seik *Zerbitzua eta lana euskaraz* maila lortu zuten; 26k *Zerbitzua euskaraz*; eta 23k *Bidean* maila. Orain dela sei urte Bai Euskarari Ziurtagiriaren proiektuarekin lanean hasi zirenetik, Baztanen lortutako emaitzekin pozik agertu zen Ziurtagiriaren Elkarteak zuzendaria den Rober Gutierrez: «55 Ziurtagiri banatu ditugu eta kopurua garrantzitsua da, baina are garrantzitsuagoa da horren atzetik dagoen lana: urtez urte ematen dituzuen urratsak, lortzen dituzuen helburuak eta zuen konpromisoaren bitartez egunerokoan eragiten duzuen». Azken urte honetan lau entitate *Bidean* mailatik *Zerbitzua euskaraz* mailara igaro dira; eta bertze batek *Zerbitzua euskaraz* mailatik *Zerbitzua eta lana euskaraz* mailara pasatzea lortu du.

beharretara eta zentroari kudeaketa orekatua ematea behar berrietara egokitzeko».

Langileen Batzordearen arabera, «zahar-etxeak betidanik funtzio publikoa izan du, bere sorreran, orain 150 urte, miseriakordea etxeari. Betidanik Baztango jendea, batez ere, agureak eta jende be-

hartsua zaintzeko helburua izan du eta orain bat batean enpresa pribatu baten eskuetan utzi dute, zahar-etxeak dituen zorrak argudiatuz».

Prozesua isilpean egin izana ere salatu du Langileen Batzordeak, «inork deus ere jakin gabe, ez langileek, ez agurerek, ez herrietako alkateek ere».

**PROTESTAN SEGITZEKO ASMOA**

Zalantza eta galde- ra aunitz sortu ditu erabakiak langileen artean: «zahar-etxeak zorrak baldin baditu eta kontratuak irauten duen bertz urteetan irabaziak ateratu behar badituzte, nola lortuko dituzte? Kalitateak jautsiz? Prezioak jautsiz? Soldatak jau-



**HERIOTZA**

Miguel Angel GARAIOA

**NaBaiko zinegotzia hil da, 62 urterekin**

Miguel Angel Garaioa NaBaiko zinegotzia ekainaren 24an hil zen Donostiako Arantzazu Ospitalean, 62 urte zituela. EAJ-PNVko afiliatua zen eta 2007ko abenduan hartu zuen zinegotzi kargua, Rakek Goñi elbetarrak dimisioa aurkeztu ondoren eta zerrendan bere aitzinetik zeuden hiru hautagaiek karguari uko egin ziotelako. Abokatua, ekonomilaria eta kontsultorea zen lanbidez, Donostian bizi zen, ezkondua zegoen eta bi seme zituen. Ekainaren 26an Donostian eman zioten agurra, eta uztailearen 3an Elizondoko Santiago elizan.

tsiz?». Horregatik eta «langileen lan baldintzek, xaharren egoerak eta oro har, zerbitzu publikoen privatizazioek arduratzen gaituztelako protestan segituko dugu».

**ZAGVA**  
EHIZA ETA ARRANTZA  
Batzordea eta Batzordea  
Batzordea eta Batzordea

**Eskisaroi**  
Jaimen Urrutia  
Tfnoa: 948 580 013  
ELIZONDO

**Pierresenea**  
OSTATU · JATETXEA  
Jaki tipikoak · Etxeko giroa  
Bartziloz auzoa · Tfnoa: 948 592 043  
ORONDOZ · MUGAIRI

## URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

# Sarara doan pottokaren bidean konponketak egiten ari da Zugarramurdiko herri langilea

Dagoeneko Bizkarrondo parean, aparkalekuan eta parkean lanak egin ditu

## Margari eta Koro

Duela hilabete batzuk Herriko Etxeak kontratatu zuen herri-mutila hainbat lanetan ari da. Batzuk, gainera, begibistakoak dira, eta aipagarrienak Zugarramurditik Urdazubira doan pottokaren bidean egindako moldaketak dira: Bizkarrondo parean lehen patarratza bat zen tokian orain zurezko pauso goxo batzuk eman dira.

Horretaz gain, aparkalekuko marrak berri-tu ditu eta parkeko zurak pintatu ere bai. Orain Sarako leizeetara doan pottokaren bideko lar eta sasiak garbitzeko lanetan ari da.

## Urdazubiko turismo langilea

Aurten estreinakoz Urdazubin Turismo Bulegoa zabaldu dute, monasterioaren sarreran, museo berrian. Zerbitzu turistikoa hobetzeko asmoz egin dute eta bulego hau aste osoan irekia egon da, astelehenetan izan ezik.

Aitzineko Ttipi-Ttaporen alean, Turismo Bulegoan lan egiteko

pertsona baten bila zebiltzala iragarri genuen. Bada dagoeneko aukeratu dute: Letizia Arrieta Sarratea urdazubiarra izanen da turismo langile berria.

## Urdazubiko museo berria zabalik

Uztailaren 1ean ireki zituen ateak Urdazubiko Salbatore monasterioan egin berria den museoak. Santiago Bideari eta komentuari buruzkoa da eta agintari politikoekin inaugurazio ofiziala ekainaren 4an egin bazen ere, publikoarentzako hilabete honetan zabaldu zuten.

## Ariznabarreta eta Armendaritzen agurra

Uztailaren 4an Zugarramurdiko pilotalekuan agurra eman zioten beren pilotari bizitza profesionalari Karlos Armendariz eta Karmelo Ariznabarretak.

Partidak ikusteko sarrera dohainik izan zen, eta banakako partidaren ondotik (Antxia-Mikel) despeditu ziren bi pilotariak Amerika eta Mitxelenaren kontra jokatu zuten.



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Bizkarrondon egindako lanen ondotik, atsegina da hor ibiltzea.



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

## Sorginaren Eguna giro bikainean

Arrakasta politarekin gan zen Sorginaren Egunaren bigarren edizioa. Eguraldi xarmenta egin zuen eta horrek giro elegantea eman zien karrikeri. Herriko antzerki taldea ere kontent gelditu zen, prestatutako hiru antzerkiekin ikuskizun ederrak eskaini baitzituzten. Bertzalde, hitzaldiak ere interesgarriak suertatu ziren, eta batez ere sendabellarrei buruzkoa, 60 lagun pasa joan baitziren Itziar Salegiri aditzera.



Dantxarinetik  
2 km-tara

**MONTXO** OSTATUA  
TABAKO-DENDA  
ANZAN-BORDA · URDAZUBI  
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

**BURKAITZEA**  
• ostatu  
• erretegia  
Zugarramurdiko bidea, 3 km  
946 996 280 · URDAZUBI



**SARA**

## Hebentik kultur elkarteak erakustaldia eskainiko du uztailaren 22an

Xiberoko taldeak hiru ikuskizun eskainiko ditu 19:30etik aitzinera

### Xan HARRIAGUE

Uztailaren 22an, Hebentik Harat erakustaldiaren zati bat ikusten ahalko da herrian. Xiberotik heldu den Hebentik kultur elkarteak hiru ikuskizun eskainiko ditu. Hasteko Clown pilotariak ikusten ahalko dira. Antzerki huntan egiazko pilotariak ariko dira, baina kanpotik etorritako batzuek haien gatza eta piperra gehituko diote partidari. Ondotik, *Totem gal-korrak* izeneko ikuskizuna izanen da. Azken hau arte ibilbide bat da. Han hemenka ostoak, aldaxkak eta ingurumeneko hainbat gai errez, ikuslearen arreta deituko du, mendiarekin eta ingurumenarekin bat egiteko norberaren mintzairarekin. Gaualdia suekin eta suziriaren ikuskizunarekin bukatuko da. 19:30ean hasiko da eta dohainik izanen da.

Erakustaldi hau Hebentik kultur elkarteak egiten ari den itzuli baten baitan kokatzen da. Uztailaren 22a arte Euskal Herriko mendi aldeko sei herri bisitatuko dituzte. Gan den uztailaren 4an Larrainen aritu ziren, eta heldu den egunetan, Arizkun, Hiriberrin, Alduden, Lesakan eta erran

bezala, Saran izanen dira. Erakustaldiguziak ezberdinak dira. Informazio gehiagorako, [www.hebentik.wifeo.com](http://www.hebentik.wifeo.com) web orrian aurki daiteke.

### Ihiztarienezohiko batzarra

Sarako ihiztariak joan

den hilabetean bildu ziren heldu den denboraldiko norabide nagusiak adosteko eta ihizi federazioak eginiko eskaintza bat aztertzeko. Federazioak ihizia hiru urtez hestea proposatu die eta bizkitartean erbientzako eta faisanten-

tzako parkeak egitea hauen kopurua emendatzeko. Gastuen %70 bere gain hartuko duela zioen, baina hiru urteetan erbi eta faisanta gehiago ez bada, neurria urtez urte luzatzeko ahalmena hartuko luke. Horrez gain, sekulan iru-

zur edo akats bat sumatzen bazuen ihiztariaren artean, emandako sos guztia itzultzea exijitu zuen.

Ihiztariak aurka agertu dira, baina haien gisara neurri batzuk hartu dituzte. Larunbat eta igandetan bakarrik ihizatzen ahalko dira erbiak eta faisantak. Asteazkenetan ateratzen ahalko da, baina zizpik gabe. Aldiz, egun horretan azeri ihizia onartua izanen da, baina bakarrik taldean. Erbiei dagokienez, azken bi urteetan indarrean emandako eraztunen sistema bertan behera utzi dute, eta lehengo sistemara itzuli dira: ateraldi bakoitzean bat baino gehiago ez. Uso ihiztari begira, berriz, ez dute aipatu heldu den urtean abatalaririk egonen den Gaztain Lepon.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

### Ekitaldi ugari uztailean

Urtero bezala, ekitaldiz betea etorri zaigu uztaila. Aurten Pottokaren Eguna berriz Saran egingen da. Uztailaren 25ean izanen da goizetik hasita egun osoan errebotean. Biharamunean, leku berean, kermeza ospatuko da. Baina beste bi egun nagusi horien aitzinetik, hemengo produktuen eta eskulangintzaren merkatua eta Zazpiak Bat Dantza Taldearen besta egingen dira, uztailaren 12an lehena, eta 18an bigarrena. Horrez gain, hiru kantaldi entzuteko aukera izanen da hilabetea finitu baino lehen. Uztailaren 16an Ukrainiako Elviveko opera ariko da Elizan eta aste bat geroago, 23an, Saiberri eta Diabala taldeak. 30ean Ainhoako Atsulai koralaren txanda izanen da, baina hau Santa Kattalinan ariko da. Kanpoko dantzek ere tartea izanen dute egitarau huntan. Larunbatean Espainiako dantzak eskainiko dira, eta igandean zortzi, berriz, Martinikakoak. Ekitaldi horiez gain joko garbi partidak, euskal dantzak, eta herri kirol erakustaldiak ikusten ahalko dira astelehen, astearte eta asteazkenetan, hurrenez hurren.

### Mickael Jackson gaua

Urtero bezala, Gaztetxeak gai bati lotutako gaualdia antolatu du uztailaren 13rako. Aurten Mickael Jackson gaua izanen da, eta poparen erregearekin zerikusia duen zerbait janztea galde egin da bestan sartu ahal izateko.



**ttipi txartelarekin**  
beti irabazten  
deitu 948 635 458  
eskatu zurea

**40€rekin**  
Harpidetza, 40 dendetan deskontuak,  
hamabostero zozketak eta gainera, errenta  
aitormenean %25 itzultzen dizute

## SENPERE

# 43 urtez pilotarien entrenatzailea izan ondoan erretiroa hartu du Ithourriak

85 urte bete dituenean pilotariak entrenatzea uztea deliberatu du

## Franck DOLOSOR

Senperrak ez du sekulan aski eskertuko Jean Ithourriak pilotaren alde egin duen lana. Hitzak Jakes Casaubon pilotazalearenak dira. Bi gizonak lagun haundiak dira. Gan den otsailean, 85 urte bete zituen Ithourriak eta deliberatu zuen pilotariak entrenatzea uztea. Haatik, Jeanek ez du ahanzten lau hamarkadetako bide hori egin duela bere andrearen laguntza izan baitu beti...

43 urtez pilotari gazteak trebatu eta lagundu ditu Jeanek. Bertzalde, Senpereko bestetako astelehen arratsalde hutsa alaitzeko, gazteen arteko zoingehiagoka apailatzea pentsatu zuen eta lan hortan aritu da 34 urtez.

Aurten ere, pilotari gazte-gazteak agerrarazi zituen Jeanek duela urte batzuk Chabatene, Santiago eta Théophile aritzen ziren karrika nagusiko errebotean. Sari emateen ondotik, kirol taldeko arduradunek operari bat eman zioten

Ithourriari, eta bihotzetik eskertu zuten urteetan eman duen laguntza haundia. Pilota partidak ikusten ari zirenek esku zarta luze eta hunkigarriekin eskerrak eman zizkioten senperrak ezagunari. Biba zu Jean, goresmenak!

## Amotzeko bestak

Asteburuan, Amotzeko besten kari Brigantzia Gipuzkoako taldearen zeltiar doinuak entzuten ahalko dira. Musikari hauek Beasain aldekoak dira. Aipagarria da beren herriko auzo baten izena Senpere dela! Beasain eta Lazkao herrien artean kokatzen da auzo hori.

## Pilotaren erakustokia

Uztailaren 15ean idekiko ditu ateak pilotari buruzko erakustoki berriak. Turismo Bulegoaren ondoan da eta Ipar Euskal Herriko gisa huntako lehen gunea da. 250 metra karratuko gunea hau prestatzeko 400 000 euroko gastua egin da.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Jean Ithourria lorietan, biharko pilotari haundien ondoan. Erretiroa hartuta ere, ez da dudarik handik edo hemendik pilotaren gorabeherak segituko dituela...



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

## Bertsulariak Senperen

Senpereko bestetako herritarren bazkaria ospe handiko hiru bertsularik alaitu dute aurten ere. Badira hiru urte bertsulariak gonbidatzen dituztela eta bertsuek beren tokia berriz hartzen dutela Matxin Irabola haundiaren herrian. Aldi huntan, Amets eta Maialen Arzallus anaia-arreba hendaiarrak eta Sustrai Colina urruñarra agertu ziren taula gainean. Oren erdi batez, ederrak bota zituzten eta entzuleek ongi irri egin zuten gan den urteko herriko bozak aipatu dituztelarik. Azken urteetan bezala, iaz ere hiru zerrenda aurkeztu ziren eta hiru bertsulariak hiru zerrendaburuak balira bezala mintzatu ziren. Maialen, Christine Bessonart auzapeza zen; Amets, Pierre Marie Nousbaum eta Sustrai, Jef Bederede. Gorabeherak gorabehera Europako mintzaira zaharrena aitzinera ari da Senperen ere. Duela 10 edo 20 urte nork erranen zuen bertsulariak entzunen genituela Senpereko besten karietarat?

## Auxtinen lan berria

Zemahi izan eta ere... Hori da Auxtin Zamora herriko olerkariaren azken liburua izena. Beresentimendu eta gogoe-

tak adierazteko haur denborako mintzaira eta euskara batua nahasi ditu liburuan Altxiburuakoak.

## Kantariak udan

Uda guziz bezala, aur-

ten ere kantari taldeak entzuten ahalko dira elizan. Bihotzez, Saiberri eta Argileak agertuko dira, bertzeak bertze. Kantaldi hauek 21:30ean iraganen dira.







## EZKONTZAK

**Jorge Obregozo Agirre** eta **Rakel Garrido de la Fuente**, Berakoa eta Lesakakoa, maiatzaren 30ean Lesakan. **Iker Ojembarrena Gutierrez** eta **Ekiñe Etxepeteleku Elizondo**, Bilbokoa eta Lesakakoa, ekainaren 13an Lesakan.

**Mikel Zabaleta Igartua** eta **Aitziber Nabaskues Erbiti**, Lekunberrikoa eta Leitzakoa, ekainaren 20an Leitzan.

**Patxi Sagastibeltza Iparragirre** eta **Nerea Zunzunegi Diosdado**, Leitzakoak, ekainaren 20an Leitzan.

**Alejandro Irazu Eizagirre** eta **Josune Irastorza Altzuguren**, Zizurkilgoa eta Berakoa, ekainaren 20an Igantzin.

**Gracien Barnetxe** eta **Jenifer Corbett**, ekainaren 27an Saran.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*



## SORTZEAK

**Ekain Salegi Zapiain**, Anizkoa, ekainaren 30ean.

**Oinatz Aiestaran Eizmendi**, Lesakakoa, ekainaren 16an.

**Ibai Imaz Ezkurra**, Leitzakoa, ekainaren 18an.

**Adur Sagardui Lekuona**, Goizueta-koa, ekainaren 29an.

**Olaia Otxandorena Petrirena**, Oronoz-Mugairikoa, ekainaren 26an.

**Ekain De Madariaga Iturria**, Sarakoa, ekainaren 30ean.

**Jon Goietxe Guridi**, Sarakoa, ekainaren 12an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*



## HERIOTZAK

**Gregoria Iriarte Irigoien**, Elizondokoa, ekainaren 17an, 86 urte.

**Dolores Bergara Telletxea**, Lesakakoa, ekainaren 17an, 88 urte.

**Agustin Jorajuria Arretxea**, Sunbillakoa, ekainaren 22an, 80 urte.

**Fructuoso Apeztegia Jaimerena**, Elizondokoa, ekainaren 22an, 69 urte.


**Elena Indabere Larregi**, Oronoz-Mugairikoa, ekainaren 23an, 85 urte.

**Ramontxo Mendiburu Etxenike**, Zugarramurdikoa, ekainaren 23an, 67 urte.

**Joakin Garmendia Iturriotz**, Elizondokoa, ekainaren 25ean, 82 urte.

**Alejandro Pulido Medina**, Almandozen, ekainaren 26an, 99 urte.

**Karmentxu Goñi Elizondo**, Arantzakoa, ekainaren 28an, 68 urte.



### Isabel BALLESTEROS JAUREGI

Elizondoko Francisco Joakin Iriarte zahar-etxean hil zen, ekainaren 15ean

*Hartu zaituen lur hortatik landare berriak sortuko dira, landareetatik zuhaitzak zuhaitzetatik loreak loreetatik fruituak...*

GOÑI-LAKAR-OTXOA FAMILIA



### Karmentxu GOÑI ELIZONDO

Arantzán, ekainaren 28an, 68 urte zituela

*68 udaberritan eman digun umorea  
68 udaberritan loratu den landarea  
joan egin da gure amatxi emakume alai dotorea  
baina bihotzean leku bat dugu beti zuretzat gordea.*

ZURE FAMILIA

### Rekordatorioak egiten ditugu



*Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua*

KULTURKARI  
Andutzeta 12, Etxalar  
Tfnoa: 948 63 54 58

## HERRI KIROLA

# Nafarroako bigarren mailako aizkolari txapelketako finalerako boskotea prest

Donezteben egin zen kanporaketa ekainaren 27an

## ttipi-ttapa

Jon Rekondo leitzarra (7:11), Otsagiko Daniel Vicente (7:35), Patxi Mindegia zubietarra (7:41), Oihan Larretxea beraterra (7:50) eta Beintza-Labaiengo Xabier Mindegia (8:25) ariko dira Nafarroako bigarren mailako aizkolari txapelketaren finalean, Donezteben ekainaren 27an sailkapena lortu ondotik.

Finaletik kanpo gelditu ziren Beintza-Labaiengo Jexux Etxeberria, Etxarri Aranazko Juan Jose Erdozia, Arkaitz Olano leitzarra, Luis Mari Belarra do-



ARGAZKIA: LEGARRA

Finalean izanen diren borts aizkolariak, sailkapena lortu ondotik.

neztebarra, Garraldako Sergio Mandazen, Beintza Labaiengo Jon Telletxea, Xabier Ariztegi

etxalartarra eta Juan Telletxea doneztebarra. Ariztegi eta Telletxea 3. mailara jautsiko dira, bai-

na parte hartu ez zuen David Amillanoren kontra kanporaketa jokatzea eska dezakete.

## TXIRRINDULARITZA

## 'La Miguel Indurain' uztailaren 26an Beran

Bi ibilbide izanen dira aukeran

## ttipi-ttapa

La Miguel Indurain Nazioarteko XVII. Txirrindularitza ibilaldia uztailaren 26an egingen da eta urtero bezalaxe, bi ibilaldi izanen ditu aukeran. Luzea, 186 kilometrokoa, 8:30ean abiatuko da eta laburrena, 113 kilometrokoa, 9.00etan. Guzira, 2.000 txirrindularizale espero dituzte egun horretan Beran.

Izen-ematea Internet bidez egiten ahal

da, [www.laindurain.com](http://www.laindurain.com) helbidean, edo posta bidez, uztailaren 24a bitarte. Dorsalak uztailaren 25ean 15:30etik 21:00etara eta probaren egun berean, 6:30etik ibilaldia hasi baino ordu erdi lehenago arte. Toki-Ona kiroledegian jarriko den bulegoan har daitezke.

Probaren egunean 250 lagun ariko dira lanean eta hornidura guztiak izanen dira Belate, Orokieta eta Arte-



UTZITAKO ARGAZKIA

**Aurkezpena ekainaren 23an egin zen: Enrique Irazoki eta Jose Mari Telletxea C.C. Beratarrako ki-deekin batera, Miguel Indurain, Mario Zunarren foruzaina, Kirol eta Gaztediaren Institutuko Natxo Arbeloa eta Rural Kutxako Carmen Diaz izan ziren.**

siagako kaxkoetan. Proba bukatzean ere, denentzako janaria eta opariak izanen dira eta egindako denborarekin eta sailkapenarekin diploma jasoko dute txirrindulariek. Laguntzaileentzat bidaia tu-

ristikoa izanen da eta horretarako aitzinetik izena eman beharko da eta arratsean herri afaria, nahi duen guziaz errendako. Interesatuak uztailaren 24a baino lehen eman beharko dute izena.

## Iparraldeko Joku Torneoa marka onekin akautu da

## ttipi-ttapa

Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako Iparraldeko Joku Torneoaren hiru jardunaldiak jokatu dira. Kokor biltzen, bi denborarik onenak kontuan hartuz, Fernando Etxegaraik irabazi du txapelketa (12:24), bigarren Andoni Lasaga izan da (12:52) eta Patxi Irazoki hirugarren (12:54). Bereaiekin batera, Iñaki Ekisoain eta Eder Golderazanak parte hartuko dute Nafarroako kokoz biltze txapelketan. Ingude altxatzen, iaz lehenbiziko agerpena egin zuen Joakin Aioroa iturndarrak eta azpitxapel-dun izan zen. Aurten, berriz, txapel-dun izan da 199 jasoaldirekin; Carlos Seinek 185 egin ditu; Ander Mitxelenak 172 eta Xabi Sein 130ean gelditu da. Harri-jasotzean Unai Bertiz sunbildarra nagusi izan da hiru saioetan. Lasto altxatzen, Iñaki Bereau nagusitu da, 32 jasoaldirekin; Oskar Telletxeak eta Carlos Seinek 30 egin dituzte eta Xabi Seinek 22rekin gelditu da, hori bai, jardunaldi bat guttiago jokatuta. Txinga eramaten, Miguel Angel Sukuntza leitzarrak bi saio aski izan zituen kasik 1.200 metro egiteko eta aurten ere txapelketa irabazteko.



## FUTBOLA

# Doneztebe Futbol Taldeak Nafarroako Kopa irabazi du bere bigarren denboraldian

Ekainaren 20ko finalean 0-1 irabazi zion Castillo de Tiebas taldeari

## ttipi-ttapa

Doneztebe Futbol Taldeak Nafarroako Erregionaleko lehen mailako kopa irabazi zuen ekainaren 20an Mutiloabeitin, finalean Castillo de Tiebas taldeari 1-0 irabazita. Jon Apeztegiak egin zuen doneztebarren gola, sortu zenetik bere bigarren denboraldia bete berri duenean dagoeneko lehenbiziko titulua emanenez Doneztebe Futbol Taldeari.

Finaleko lehen zatian jaun eta jabe izan zen Doneztebe Futbol Taldea, baina kasik azken minutura arte ez zuen egin gola. Denboraldi bikaina osatu duen Iker



Doneztebeko futbolariak gustura, beraien lehen titulua eskuratu ondotik.

Irazokik ezker hegalerantz zabaldu eta Jon Apeztegiak jokaldi ederra egin ondotik, Tiebasko-ensarera bidali zuen ba-

loia.

Bigarren zatian hobeiki aritu ziren Castillo de Tiebaskoak eta zutoinera bidalitako baloi

batekin estutu zituzten Doneztebekoak, baina zorionez, markagailua ez zen mugitu. Azkenean, garaipena eta be-

re historia laburreko lehen titulua Doneztebe Futbol Taldearentzat.

Mikel Maia entrena-tzaileak, denboraldi hasieran, zazpi lehenbiziko artean sartzea lortzen handia zela uste bazuen ere, ligan laugarren izan eta igoera faserako sailkatzeko puntuan izan ondotik, kopa ezustea eman eta txapelidun izan dira. Gustura dago sunbildarra emaitzarekin, baina batez ere, «*bi urtez taldea sendotu dugulako. Lehen urtean futbola berria zen batzuentzat, baina kide guziek elkarrekin duten harreman onari esker, lana eginez talde polita egin dugu*».

## Euskal Futbol Campusa egiten ari dira aurten ere Lesakako Mastegin

Lehen txanda ekainaren 22tik 28ra izan zen

## ttipi-ttapa

Euskal Futbol Campus elkarteak, Lesakako Beti Gazte elkarteak eta Lesakako Udalak, Euskal Futbol Campusa antolatuta dute aurten ere, futbolaren bidez, euskararekin harremanak sendotu asmoz. Seigarren edizio honetako lehenengo txanda ekainaren 22tik 28ra egin zuten, monitore lanean

Lorea Sarobe beratarrak, Xabier Sagastibeltza leitzarria eta Oihane Gil ziztuztela. Goizean futbolarekin zerikusia duten ariketak egiten zituzten Mastegin eta arratsaldean bertze hainbat ekitaldi Lesakan eta inguruko herrietan. Hurrengo txanda uztailearen 27tik abuztuaren 2ra egingen dute. Lehendabiziko txanda honetan



Euskal Futbol Campuseko lehen txandako neska-mutikoak, Lorea Sarobe, Xabier Sagastibeltza eta Oihane Gil begiraleekin Mastegin.

40 neska-mutiko arituz, zortzi Lesakakoak, baina gainerako gehienak Iruñerrikoak eta Erribera aldekoak. Urteetan monitore den

Lorea Sarobe beratarrak aipatu digunez, orain arte Txakainlora aterpean hartzen zuten gauerako ostatu, baina aurten tokirik ez dagoe-

nez, Beti Gazte elkarteak egoitza utzi die eta bertan egin dute lo koltxoietan. Bazkaria eta afariak, berriz, Kattu jatetxean egin dituzte.

## PILOTA

# Josetxo Ezkurra XIX. Memorialaren finalak jokatu dira Donezteben

250 pilotari aritu dira aurtengo edizioan

## ttipi-ttapa

Josetxo Ezkurraren omenez hemeretzigarren urtez antolatutako pilota txapelketaren finalak jokatu ziren ekainaren 28an Donezteben. 250 pilotari inguruk parte hartu dute txapelketan, 80k umeen kategorian, 76ek kimuetan, 54k haurretan, 34k kadeteetan eta 24k gazteen mailan.

Finaletan, **Umeak B** mailan, Goizuetako Aitor Aizkorbe eta Mikel Apezteak 18-11 irabazi zieten Lesakako Aimar Otxoteko eta Jorge Agirreri. **Umeak A** mailan ere Goizuetara joan zen txapela, Antton Apezteak eta Iker Salabe-



ARGAZKIA: MENA

Finalean parte hartu zuten pilotariak.

rriak 18-7 irabazi baitzieten Igantziko Jokin Mitxeo eta Enaitz Tellexari.

**Kimuak B** mailan, Burlatako Eskiroz eta Aranguren 18-17 irabazi zieten Saldias eta Agirreri. **Kimuak A** mailan, Donibaneko Medina eta Bakaikoak 18-14 irabazi zieten Berako Ander Errandonea eta Andoni Lazkanotegiri.

**Haurrak B** mailan, Zigako Joxean Etxeberriak eta Iruritako Iñaki Azpirozek 18-9 irabazi zieten Lekarozko Aitor Almandoz eta David Albiasuri. **Haurrak A** mai-

lan, Lesakako Unai Zamorano eta Elizondoko Dario Trantxek 18-16 irabazi zieten Ugaitz Elizalde eta Arkaitz Untxalo iturendarrei.

**Kadeteak B** mailan, Burlatako Azkona anaiek 18-15 irabazi zieten Iñaki Oskoz eta Ismael Agesta almandoztarrei. **Kadeteak A** mailan, Sakanako Jaka eta Anduezak 18-15 irabazi zieten Oronozko Joseba Arizmendi eta Amairuko Iban Indari eta **gazteen** mailan, Saldiasko Aritz Juaneneak eta Amairuko Antton Jauregik 18-11 irabazi zieten Almandozko Joseba Iraola eta Gorka Altzuarteri.

## LASTERKETA

## Sabin Arruti beteranoa nagusi Doneztebeko XXXI. Herri Lasterketan

200 korrikalari atera ziren

## ttipi-ttapa

200 laisterkari baino gehiago bildu zen Doneztebeko Herri Krosan, inoiz izan den parte-hartzerik haundiena. Eguraldia lagun eta giro ederra izan zuten Doneztebeko karriketan. Batez ere ttikien kategorietan korrikalari ugari atera ziren. Lasterkaldi nagusian,

gizonezkoen senior kategorian, azkenean ez zen marokoarren parte-hartzerik izan eta Txantrea taldean ari den Sabin Arruti beteranoak irabazi zuen, zortzi kilometroak 24 minutu eta 43 segundotan egin ondotik. Donostiarraren lehenbiziko garaipena izan zen Doneztebeko krosan.



ARGAZKIA: ERREKA K.E.

Sabin Arruti garailea helmugara sartzen, ekainaren 21eko proban.

Bigarren Patxi Orofino izan zen eta hirugarren Santi San Miguel do-

neztebarra. Nesketan Maika Ariztegi iturendarra gailendu zen, Ana

Zelaieta doneztebarra eta Lorea Agirre bertarraren aitzinetik.



## PILOTA

# Igantzi nagusitu da Belate elkarteko Herrien Arteko Txapelketan

2-1 irabazi zion finalean Baztani

## ttipi-ttapa

Belate elkarteko klubek jokatzeko duten Nafarroako Herrien arteko pilota txapelketaren finalak jokatu ziren ekainaren 20an Igantzin, Igantziko Biltoki eta Baztango Txarutaren artean. Hiru partidetatik bi irabazita, etxeko taldea, Igantzi, suertatu zen txapeldun.

Umeen kategorian, Igantziko Biltokiko Jokin Mitxeo eta Enaitz Telletxeak 18 eta 8 irabazi zieten Baztango Txarutako Elur Meoki eta Ibon Irazokiri.

Kimuen kategorian, Txarutako Mattin Asiain eta Iñaki Ansok 18 eta 14 irabazi zieten Biltokiko Oihan Canabal eta Peio Migelenari eta haurren kategoriako partida estu eta erabakigarrian, Biltokiko Unai Telletxea eta Mikel Beginok 18 eta 16 irabazi zieten Txarutako Iñaki Azpirotz eta Dario Tranxeri.

Aipatzekoa da Unai Telletxeak bertze txapel bat ere lortu zuela asteburuan. Jon Olaizola lesakarrarekin batera, Lizarrako txapelketako

Umeak B mailan txapeldun suertatu zen biharamunean.

## LEITZA FINALEAN

Nafarroako Pilota Federazioak antolatzen duen Nafarroako Herriarte txapelketan, berriz, Leitzak finala jokatuko du. Uharteren kontrako finalerdietako joanekoan, bina partida irabazi zituzten, baina leitzarrek hamar tantoko abantaila lortu zuten. Amazabal pilotalekuan erabaki zen finalerako txartela ekainaren 27an, eta etxean hiru partida



UTZITAKO ARGAZKIA

**Igantzi pilotariak txapeldun suertatu dira Belatek antolatutako Herriarte txapelketan irabazita.**

irabazi zituzten leitzarrek. Alebinetan, Jon Lezeak eta Ander Eskuderok 18 eta 11 irabazi zioten Uharteko bikoteari. Infantiletan, Anartz Olanok eta Mikel Herandorenak 18 eta 10

irabazi zuten eta jubenetan, Xabi eta Jon Jaunarena anaiek 22 eta 6. Dagoeneko sailkapena segurtatua zutela, seniorretan, 16-22 galdu zuten Asier Garcia eta Mikel Iriartek.

## Errekako buruz buruko txapelketaren finalak jokatu dira

Bederatzi kategoriatan aritu dira Doneztebeko elkarteko pilotariak

## ttipi-ttapa

Erreka pilota eskolako pilotariak jokatu duten bigarren buruz buruko txapelketaren finalak jokatu ziren ekainaren 20an Doneztebeko udal pilotalekuan.

Laugarren mailako benjaminetan, Joseba Bengoetxeak 18 eta 15 irabazi zion Ruben Saldiasi. Hirugarren mailako benjaminetan, Aimar Zestauk 18 eta 5 iraba-

zi zion Mikel Bangori. Bigarren mailako benjaminetan, Ioritz Zelaiek 18 eta 14 irabazi zion Gorka Antuñari. Lehen mailako benjaminetan lehia ikaragarria izan zen finalean eta Beñat Lazkanok 18 eta 17 irabazi zion Julen Indari. Bigarren mailako alebinetan, Asier Baztarrikak 18 eta 13 irabazi zion Julen Saldiasi. Lehen mailako alebinetan, Aritz



ARGAZKIA: TELLETXEA

**Erreka elkarteak bigarren urtez antolatu duen buruz buruko txapelketako bederatzi kategorietako irabazleak, saria jaso ondotik.**

Fagoagak 18 eta 16 irabazi zion Joel Oronozi. Bigarren mailako infantiletan, Cristofer Alvarezek 18 eta 10 irabazi zion Jon Mikelarenari.

Lehen mailako kadetan, Irait Zestauk 18 eta 13 irabazi zion Ibai Juanenari eta lehen mailako jubenetako final ikusgarrian, Beñat Oro-

nozok 18 eta 12 irabazi zion Unai Madariagari. Biek ere gauza ederak egin zituzten, profesionaletan ikusten ez direnak.

# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

### ERAKUSKETAK

#### AMAIUR

Irailaren 21era bitarte, Virginia Gil Cousoren argazki erakusketa Amaiurko Errotan.

### IKASTAROK

#### ELIZONDO

Abuztuaren 3tik 31ra, helduendako ikastaroa: Baztango paisaiak. Astelehen, asteazken eta ortziraletan. Izen-ematea Arizkunenean. 25 plaza eta prezioa: 90 euro Irakasleak: J. M<sup>a</sup> Apezetxea eta T. Sobrino.

### ZINEMA

#### ELIZONDO

**Uztailaren 8an**, udako zinema. *El Reyno prohibido* filma, 22:00etan Merkatuko Plazan.  
**Uztailaren 10ean**, udako zinema. *La Momia 3: La tumba del emperador* filma, 22:00etan Merkatuko Plazan.  
**Uztailaren 13an**, udako zinema. *Oliver Twist* filma euskaraz, 22:00etan Merkatuko Plazan.  
**Uztailaren 15ean**, udako zinema. *Lobezno Xmen origenes* filma, 22:00etan Merkatuko Plazan.

### IKUSKIZUNAK

#### SARA

**Uztailaren 22an**, Hebertik kultur elkartearen ikuskizuna, 19:30etik aitzinera. Xehetasunak 48. orrialdean.

### AZOKAK

#### SARA

**Uztailaren 12an eta 18an**, bertako produktu eta eskulan azoka.

## GOMENDIOAK



# Baztandarren Biltzarra besta haundia uztailaren 19an

## GOIZEAN GOIZETIK GIRO ONA NAGUSI

Ilusioz eta gogoz egonen dira baztandarrak gargero. Eta baztandarrak ez ezik, kanpokoak ere bai, urtetik urtera gero eta jende erakartzen duen eguna baita Baztandarren Biltzarra. Igande honetan zortzi, uztailaren 19an, Baztandarren Biltzarra besta haundia egingen da. 10:00etatik 14:00etara bitarte artisau azoka izanen da Pedro Axular karrikan. Tarte horretan, 11:00etan hasiko da ekitaldi nagusia: orgen desfilea. Elizondoko karriketan barna Baztango herritarrek egindako orgak ikusteko aukera izanen da. Gustuaren arabera, bakoitzak bere gaia edo aldarrikapena izanen

du. Zahar-etxearen ingurutik abiatuko dira eta udaletxean akituko dute itzulia. Orgen desfilearekin batera, dantzariak, musika doinuak... Denetarik izanen da. Orgen desfilearen ondotik, denak elkarrekin Merkatuzelain bilduko dira bazkaltzeko. Bazkalondoa desfileko eta kartel lehiaketako sariak banatuko dira eta ilunabarrean, joan den urtean bezalaxe, Trikidantz taldearekin dantzaldia izanen da. Edonola ere, besta aitizineko egunean hasiko da aunitzentsat, uztailaren 18an. Egun horretan Laiotz taldeak dantzaldia eskainiko du.

## DISKAK



Vaya full

TXAPELPUNK

BAGA-BIGA, 2009

Txapelpunk taldeak bere laugarren lanean jarraitu egin dio aitizineko diskoetan hartutako bideari. Punk-rock estiloa jorratzen du, nahiz eta bertze kutsuko musiken eragina ere baduen. Dena den, Txapelpunk taldearen diskorik punkzaleena da eta homogeneoena. «Punk azkarra, punk sutua, abiadura handiko punka, melodiaz gainezka datorren punka, melodia itsaskorrez betetako punka». Gitarra berebiziko garrantzia izan arren, nagusitasuna melodiek dute. Punk rocka batzutan skarekin nahastuta, punka eta hard-corea, punka mexikar erara atondua. Zuzenak, garbiak, zorrotzak eta gardenak arlo sozialari dagozkionez. Maitasun kontu nahikoa datoz eta hemen ironia, alaitasuna eta graziarekin idatzitako kantuek daude.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (ekainaren 16tik 26ra bitarteko prezioak)



### ZERRIKIA

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 38,00 € (=)

**Zerri gizena**  
1,201€ kilo. (+0,040)

**Zerramak:**  
0,450€ Kg/bizirik. (+0,010)



### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
Extra 3,83 (=)

**1.koa** 3,53 (=)  
**2.koa** 3,83 (=)

**Urruxak:** €/kg. Kanal  
Extra 3,93 (=)

**1.koa** 3,63 (=)  
**2.koa** 2,95 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 130,00 (=)  
idixkoak 210,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 108,00 (=)  
idixkoak 130,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 2,90/3,00  
Zaldi-behorrak: 1,60/1,80  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 6,40/7,20  
8-10 kilokoak: 5,20/5,60



### JAKIN BEHARREKOAK

# Senitartekoren bat hiltzean bizitza aseguruaren agiria eskatzea komeni da

Interesatuak zerbait kobratzea dagokion ala ez jakiteko balio du

Familiako norbait hiltzen denean, bizitza-aseguruaren ziurtagiria eskatzea komeni dela aholkatu du Iratxe Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarteak. Herritarrek informatzeko helburuarekin, aukera hau duela bi urte jarri zen indarrean, senitartekoren bat hilez gero, hildakoari bizitza-asegururik ote zegokion ala ez jakiteko, eta hala balitz, zerbait interesatuak zerbait kobra dezakeen jakiteko. Nafarroa osoan dagoeneko 4.000 lagunetik goitik eskatu omen dute ziurtagiria, 4.074k zehazki. Horietatik 1.110 2007ko ekaina eta Abendua artean eskatu ziren, 2.129 joan den urtean eta 835 aurtengo urte hasieratik maiatzera bitarte.

Herritarren lautik batek ezintasun edo heriotza - aseguru



**Erregistro hau duela bi urte jarri zen indarrean eta geroztik 4.000 lagunetik goitik eskatu dute.**

kontratua izaten du, baina ezjakintasunagatik, poliza horien %10a ez da kobratzen. Izan ere, aseguru-etxeak ez dauke hildako pertsonak aseguruaren bat kontratatua ote zuen jakinaraztera behar-tuak.

Kobratu gabe ez gelditzeko aukera


ematen du erregistro honek, eta Iratxeren arabera, hori «positibo da». Hala, familiakideren bat hil eta bizitza-aseguruaren ziurtagiria eskatuta, hildakoak gisa honetako polizaren bat kontratatua izanez gero, dagokionak kobratzeko eskubidea izanen luke.

### BALDINTZAK

Ziurtagiri hau lortu ahal izateko, heriotza-ziurtagiria aurkeztu behar da, eta horrekin batera, Espainiako Justizia Ministerioaren web orritik jaitsi daitekeen 790 eskabide orria bete eta 3,47 euro ordaindu. Interesatuak erantzuna momentuan jasoko du eskaera Ministerioaren Iruñeko bulegoan eginez gero, eta gehienez ere zazpi eguneko epean, eskaera postaz egiten bada. Eskara heriotza ondoko 15 egun baldiodunak pasatu baino lehen egin behar da.

Bizitza-aseguruaren ziurtagiriarekin balizko onuradunak aseguru-etxera jo behar du interesatuak, benetan onuradunak den ala ez jakiteko, eta hala balitz, dagokiona eskatu ahal izanen du.

### LIBURUAK



Maitasuna da geratzen den bakarra

**Uxue ALBERDI (itzul.)**

ELKAR, 2009

Helduek nahiz gazteek irakurtzeko moduko ipuin-bilduma ondu zuen Agustín Fernández Paz idazle galziarrak. Ipuinen gainean, Pablo Auladell marrazkilaria alacantarrak ilustrazio bereziak egin zituen eta Uxue Alberdi idazle algoibartarrak itzuli egin du. Badira liburu honetan hari ikusezin batzuk, pertsonaien bizitzak elkartzen dituztenak. Diana, Sara, Pablo, Laura, Adrian... Denak maitemintzen dira, denek deskubritzen dute maitasuna sentimendu in-

dartsua dela, maitasuna gai baina pertsona bat goitik behera aldatzeko eta bizitza bertze modu batez ikusarazteko. Aldi berean, desamodioaren mingostasuna ere ezagutzen dute, edo absentiarena, urruntzearena, edota maitasun apurtuena. Maitasuna bere aldaera guztiekin, gazte denboretako lehenmaitasunetik hasi eta heriotzaz haraindi bizirik irauten dueneraino. Eta hor daude beti liburuak, bidelagunak maitatzeko abenturan.

## AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

### BESTAK

#### ITUREN

Uztailaren 17tik 20ra, bestak.

#### ARANO

Uztailaren 18an, 19an eta 24tik 26ra, Santio bestak.

#### ELGORRIAGA

Uztailaren 23tik 26ra, Santio bestak.

#### ELIZONDO

Uztailaren 24tik 28ra, Santiago bestak.

#### SENPERE

Uztailaren 10ean eta 11n, Amotzeko bestak.

### OSPAKIZUNAK

#### ELIZONDO

Uztailaren 19an, Baztandarren Biltzarra. Xehetasunak 44. orrialdean.

#### SARA

Uztailaren 25ean, Pottoken Eguna.

### KONTZERTUAK

#### DONAMARIA

Uztailaren 24an, Saxo eta cello kontzertua, 19:30ean Jauregia Dorretxean.

#### SARA

Uztailaren 16an, Ukrainiako Elviveko opera. Xehetasunak 48. orrialdean.

### DANTZAK

#### BERA

Uztailaren 23an, Bidasoaldeko XIII. Gazteen Folklore Jaialdiko emanaldia. 20:00etan Altzateko plazan.

#### ETXALAR

Uztailaren 26an, Bidasoaldeko XIII. Gazteen Folklore Jaialdiko emanaldia. 12:30ean plazan.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar dira. Argazkia jarri nahi izanez gero, 10 €. Ttipi-ttapa telebistan eta [www.ttipi.net/en](http://www.ttipi.net/en) ere agertuko da 8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

### ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

### LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

### MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

### ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

### DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

- 801. Agurrak

## ANZABAL INMOBILIARIA

### BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

### IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

### ZUGARRAMURDI.

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatuek bere lurraekin salgai.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

[anzabal@anzabal.com](mailto:anzabal@anzabal.com)

BERA  
MAITZAN DAGOK  
ILEAPAINDEGI BAT  
ERRENTAN EMATEKO  
☎ 675 716121

### ETXEBIZITZAK

#### 101 Saldu

**BERA.** Bortziriak auzoan etxe adosatua salgai. Interesatuak bakarrik deitu. ☎617 567047.

**DONEZTEBE.** Intzakardi parkearen ondoan pisua salgai. Pisua ganbarearekin elkartua. Garaje plazarekin. ☎680 781632.

#### ETXEBIZITZAK 103 Errentan eman

**BERA.** Agerra auzoan 80 m<sup>2</sup>ko pisua errentan emateko. ☎620 203906.

**IRUÑA.** Milagrosa auzoan pisua errentan emateko. 3 logela, egongela, komuna, sukaldea eta 30 m<sup>2</sup>ko terraza. Igogailuarekin. Berogailu indibiduala. Ikasleentzat prestatua. ☎948 890793.

**IRUÑA.** Unibertsitatetik 200 metrotara 54 m<sup>2</sup>ko apartamentua errentan emateko, bi lagunendako. ☎635 214777.

**ETXALAR.** Etxebizitza errentan emateko. Bista ederrak eta prezio egokia. ☎680 538502.

### ETXEBIZITZAK 105 Konpartitu

**IRUÑA.** Azpilagaña auzoan, pisua konpartitzeko bi lagun behar dira. UPNAREN ONDOAN. ☎661 588691 (Aitor).

### GARAJEAK/LOKALAK 107 Saldu

**LESAKA.** Antoiu 23, beheko solairuan, 48 m<sup>2</sup>ko bulegoa salgai edo errentan emateko. ☎679 432522.

**LESAKA.** 20 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

### GARAJEAK/LOKALAK 109 Errentan eman

**LEKAROZ.** Hiruiturri hostala errentan emateko. ☎948 580389 (M<sup>a</sup> Angeles edo Luis).

**BERA.** Telefonicarean ondoan garajea errentan emateko. ☎687 950368.

### LURRAK/ORUBEAK 112 Salgai

**SARA.** Ura, argia eta isurbidea dituen 800 eta 1.000 m<sup>2</sup> arteko lur eraikigarria salgai. ☎0033 559542540.

**SARA.** 800 eta 2.000 arteko lur eraikigarriak salgai. Lehenbizkai auzoan. ☎948 631133.

**ITUREN.** 2.000 m<sup>2</sup>ko lur eremua salgai, leku eta prezio onean. ☎676 013103.

**LEITZA.** Basakabi inguruan borda, artzain txabola eta 3.000 m<sup>2</sup>ko lur ere-

dua salgai. Lur-eremua aroboxamendurako da eta erdian ura du. Baimen guzietan. Bertaraino pista badago. ☎948 610686.

### ZERBITZUAK 205 Zurginak



### ZERBITZUAK 208 Bertzelakoak

**Ingeleseko laguntza klaseak** ematen dira. ☎605 729241.

### LANA 302 Eskaintzak

**BERA.** Auzoa jatetxean sukaldari kualifikatu eta esperientziaduna behar da. ☎654 385363.

Norbere etxean **haurrak zaintzeko emakumezkoak** behar dira, 0-3 urteko haurrentzat. Esperientzia ezinbertzekoa. Irakaslea edo haur hezitzailea izatea puntuako da. ☎680 866637.

**BERA, DANTXARINEA, IBARDIN eta LUZAIDEN.** Enpresa batek frantsesa dakien jendea behar du kosmetika produktuekin lan egiteko. Ahal bada autoarekin. Kilometrajeak eta dietak ordainduko dira. Ekainaren 25etik abendu bukaerara, ortzegunetik igandera lan egiteko. Batz bertze 7 ordu egunean. ☎944 106155/[congrebas@congrebas.com](mailto:congrebas@congrebas.com).

**BERA.** Kontzesionario batean esperientziadun mekanikoa behar da. ☎948 630621.

### MOTORRAK

#### 501 Salgai

**Volkswagen Scirocco 2.0** TDI 140 autoa salgai, xuria. Premium paketa. 2008ko azarokoa. 7.000 kilometro. ☎629 694443.

Gas-gas **motorra** eta **erremolkea** salgai. ☎667 675463.

**Suzuki Vitara** salgai. ☎667 675463.

**BMW 320 D** Touring autoa salgai. 163 zaldi eta 2006koa. 90.000 kilometro Azterketak BMWn pasatuak. Xenon, sensoreak, mp3a... Kontsumo ttipia: 6-7 litro/100 kilometroko. Oso egoera onean. ☎669 312220.



**Audi A3** autoa salgai, 2001ekoa. Gris metalizatua, 5 atekoa. 130 zaldi eta larruzko tapizeria. ☎667 605233.

Yamaha cw50rs **scooterra** salgai, 49cc-koa. Egoera onean eta 2005.utekoa. ☎687 661251.



**Autokarabana** salgai. ☎669 948990.






**ANIMALIAK****602 Salerosketak**

Bi **zakur** sabueso salgai, 6 eta 12 hilabetekoak. Basurdeetan hasiak. ☎655743991.

Gaztain koloreko **zaldi** ederra eta mendian ongi egoten dena salgai. ☎609 411298/690 830292.



**2 zakurkume** zuri salgai, arra eta emea, 2 hilabetekoak. West Highland White Terrier arrazakoak. ☎609 083342 (Berna).

**DENETARIK****701 Galdu aurkituak**

**Kartera marroi** lauki bat galdu da Etxalarko Bentatan edo Donezteben. ☎608 243935.

**LESKA.** Urrezko eraztuna galdu da ekainaren 7an. Barnean *M.M. 1969-04-26* jartzen du. ☎948 637138.

Yorkshire arrazako **zakur** bat agertu da Igantziko harrobinguruan. Grisa. ☎948 635458.

**DENETARIK**  
**702 Salerosketak**

Bigarren eskuko **ostalari-tzako makineria eta al-tzariak** salgai. ☎948 451302.

**Ahotza** salgai. Pakete tikiak, 4 eta 6 fizelekoak. Garagarra, garia eta oloa. ☎607 457004/667 406010 (Dani).

Itxiturak egiteko gaztain **piketeak** salgai, 2 euro-tan. 1,80 metrokoak, lodiak eta indartsuak. Gutxienez 50 piketeko eska-

**MENDAUR MOTOR**

948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**



erak. Eskaintza hau uda honetarako bakarrik da. Kargatzeko momentuan ordaindu beharra (Ez du gu ordainketa geroraturik onartuko). ☎948 510078.



**Belar bola idorrrak** salgai, aurtengoak. ☎660 393436. Eskaitza: **solariuma** sal-

**BERAKO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE BERA

**SK2KO UE8KO URBANIZAZIO PROIEKTUA**  
**HASIERA BATEZ ONESTEIA**

Berako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak, 2009ko maiatzaren 14ko bileran, Rafael Pombar, Fco. Javier Romano eta Lorenzo Jaurenak sustatutako 2. Kaxerna Sektoreko UE8ko (SK2-UE8) Urbanizazio Proiektua onetsi zuen hasiera batez.

Espedientea jendeaurrean izanen da 20 eguneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen denetik kontatzen hasita.

Bera, 2009.06.22 ALKATEA Josu Irtzoki Agirre

**Doneztebe AVIA**  
gasolindegia

Club AVIAk gehiago ematen dizu

**SARRIAK** 200 300 500 600 **ZORRIETAK**

Ez du ezarritik: **1000** eurovalde atzeratu. Mota bat.

**Egin zaitez bazkide**  
Club AVIA kartela duen eskuratu

Informazio gehiago:  
[www.clubavia.com](http://www.clubavia.com) eta Doneztebeko AVIA gasolindegian

gai, presio altukoa. Derrigorrezko azterketaren ziur-

tagiriarekin, 2009/05/20koa. ☎636 607055.

**Kulturkari**  
diseinu grafiko publikitatea

Ezkerreko katalogoa

Empresa batek behar ditzaizkeen diseinu grafikoko arlo guztiak egiten ditugu

Andutzeta, 12 - 31760 Etxalar  
Tel. 948 635 458 - Faxa 948 635 457  
[kulturkari@ttipi.net](mailto:kulturkari@ttipi.net)

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,32€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.


www.ttipi.net



JONE GORRIA ELIZONDO sunbilda-  
rrak 4 urte bete ditu uztailaren  
4an. Zorionak eta muxu haundi  
bat Sunbilla eta Berako familien  
partetik.



GORKA ARAKUES beratarak 5 urte  
bete ditu ekainaren 30ean. Zorio-  
nak Xarpa eta pitxititaren parte-  
tik.




GORKA  
ARAKUES bera-  
tarrak 5 urte  
bete ditu ekai-  
naren 30ean.  
Zorionak eta  
muxu haundi  
bat familia gu-  
ziaren partetik.



Elko-Nevadako  
MITCHELL  
OWSLEY IGOAK  
11 urte beteko  
ditu uztailaren  
23an. Zorionak  
Lesakako fami-  
liaren partetik.



Leitzako NAROA  
MARIEZKURRENA  
ALDUNTZINEK 2  
urte bete ditu  
uztailaren 4an.  
Zorionak eta  
muxu haundi  
bat pottoka!



IORITZ MITXEO OS-  
koz etxeko gizon-  
toako uztailaren  
12an 5 urte bete-  
ko ditu. Zorionak  
eta egun ona pasa  
familiaren eta,  
bereziki anaia Jo-  
nainen partetik.  
Zorionak Yoyete.



OLAIA MENDIBU-  
RU TELLETXEA  
elizondarrak 6  
urte bete ditu  
uztailaren 2an.  
Zorionak pipzi-  
reta familia gu-  
ziaren eta bere-  
ziki Iraitzen par-  
tetik. Muxuak.



Goizuetako  
IKER MIRANDAK  
9 urte beteko  
ditu uztailaren  
10ean. Zorio-  
nak eta muxu  
haundi haundi  
bat Oier, atta  
eta amaren  
partetik.



UXUE BIKONDO ARRETZEAK 2 urte  
egin ditu ekainaren 29an.  
Zorionak gure bihurri eta muxu pi-  
la aitaxo, amatxo eta Aritzen par-  
tetik.



Zorionak Arantzako printzesa IRATIRI!  
Ongi ongi pasa uztailaren 7an zure  
4 urteak ospatuz familia eta lagunen  
artean. Muxuak berexiki Beñat eta  
Mattinen partetik. Guapetona!!!




Zorionak Aran-  
tzako IRATIRI!  
Ez da zuk nahi  
orduko allegatu  
uztailaren 7a!  
Zorionak eta  
lau muxu haun-  
di zure familia  
guziaren parte-  
tik preioxia!



Zorionak NAROA  
MITXELENA LE-  
KUONARI uztaila-  
ren 10ean urtea  
beteko duelako.  
Muxu bat ataxi  
Jesus, amaxi  
Beni, guraso, le-  
hengusu eta  
osaben partetik.



Zorionak EKAITZ  
MITXELENA LE-  
KUONARI uztaila-  
ren 10ean urtea  
beteko duelako.  
Muxu bat ataxi  
Jesus, amaxi  
Beni, guraso, le-  
hengusu eta  
osaben partetik.



Zorionak HAIZEA  
MITXELENA LE-  
KUONARI uztaila-  
ren 10ean urtea  
beteko duelako.  
Muxu bat ataxi  
Jesus, amaxi  
Beni, guraso, le-  
hengusu eta  
osaben partetik.



Iruñeko KEMEN  
ETXEBERRIA GA-  
RRAUSEK 4 urte  
beteko ditu uz-  
tailaren 23an.  
Zorionak eta se-  
gi horrela *bixito*.  
Muxu haundi bat  
Toñi eta Arzallu-  
sen partetik.



Iruñeko KEMEN  
ETXEBERRIA GA-  
RRAUS. Ze abudo  
pasatzen diren  
urteak! Uztailaren  
23an gure *potto-  
mitok* 4 urte bete-  
ko ditu. Zorionak  
ataxi eta amaxi-  
ren partetik.




Leitzako IZAR  
preioxiak uztailaren  
19an 2 urte beteko ditu. Bi muxu  
haundi Aurtiztik eta berexiki Eki-  
fieren partetik.



Leitzako IZAR  
ANSORENA  
ASTIBIAK 2 urte  
beteko ditu uz-  
tailaren 19an.  
Muxu haundi  
bat attuna-amo-  
na, izeba-osa-  
ba eta berexiki  
atte ta amaren  
partetik.



Zubietako MALENK 4 urte beteko  
ditu uztailaren 15ean. Zorionak  
eta lau muxu haundi gure *top mo-  
delari* atta, ama, Mikele eta Beña-  
ten partetik. Ongi pasaaa!!!



Zubietako ARITZEK 4 urte beteko  
ditu uztailaren 10ean. Zorionak  
eta lau muxu haundi gure roker-  
o kalpar gorriari atta, ama eta Urki-  
ren partetik. Ongi pasaaa!!!



A, ze dotore eskolako lehen egu-  
negan, e bikote? Manttala horiek  
orduan bezain elegante ote dau-  
den orain? Zorionak gure bi sagu-  
txoei eta launa muxu haundi fami-  
lia guziaren partetik.



NAHIA PUMAR  
ITURRIOZEK uztai-  
laren 7an 2 urte  
egin ditu. Zorio-  
nak ganberra,  
amaxi, ataxi,  
Xabi, Itsaso, ama  
eta attaren  
partetik.



Zorionak Sunbillako NEREA PETRI-  
RENA GOROSTERRAZURI uztailaren  
4an urteak bete dituelako. Ongi  
pasa eguna familia guziaren eta  
berexiki bere iloba Iraide eta Ga-  
raineren partetik. Muxuak.



Zorionak Zubietako ENDIKA eta  
KARMELE SANTESTEBAN BENDOIRORI  
urteak beteko dituztelako: ENDIKAK  
uztailaren 1ean 3 urte eta KARME-  
LEK 13an 10 urte. Ongi pasa zuen  
urtebetetze egunak eta merendola  
goxo-goxoa prestatu. Muxu asko  
atta, ama eta Julenen partetik.

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK  
zure laguntza behar du

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK  
zure laguntza behar du

Proiektu zenbakia: 15.996

Eginzazu TTIPI-TTAPAREN alde

Zure laguntza eskertzeko, motxila eder hau izanen duzu opari.

Eskia ezazu TTIPI-TTAPAREN proiektuak aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutzaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra 2009ko abenduaren 30a baino lehen.

gaure bezeroek aukeratuako proiektua can



# ttipi txartela rekin beti irabazten da

DESKONTUAK · ZOZKETAK · ALDIZKARIA MUSUTRUK



ttipi txartela egiteko edo zozketetan  
parte hartzeko deitu **948 63 54 58**ra.  
Astehenetik ostiralera 09.00 - 16.00.

## ZOZKETAK

**MARTIKO PRODUKTUAK**  
Martiko  
[www.martiko.com](http://www.martiko.com)

**LIBURUAK**  
Erein argitaletxea  
[www.erein.com](http://www.erein.com)

**JANTZIA**  
Txapela buruan  
[www.txapelaburuan.com](http://www.txapelaburuan.com)

**JOKOA + 2 LIBURU**  
Nafarroa Gineez  
[www.nafarroagineez.net](http://www.nafarroagineez.net)

**2 KAMISETA**  
Onddo ta punto  
[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)

**LIBURUA + DVD + PINAK**  
Pirritx, Porrotx eta Marimotots  
[www.katxiporreta.com](http://www.katxiporreta.com)

## SARIDUNAK

ttipi txartela

- 2 LIBURU (Ibaizabal argitaletxea)  
Gurutze Grazianena (Bera)
- 2 LIBURU (Erein argitaletxea)  
Aranxi Diez (Zubieta)
- KAMISETA (Txapela buruan)  
Blanca Ebeberria (Etxalar)
- KAMISETA (Nafarroa Gineez)  
M<sup>o</sup> Dolores Barno (Elizondo)
- KAMISETA (Olinart)  
Xabier Angulo (Bera)
- ZIZTADAK (Argia Jolasak)  
M<sup>o</sup> Tere Urkijo (Lesaka)

ttipi saskia

- LIBURUA (Mendukiloko leizeak)  
Itziar Irigoin Agirre
- 5 SARRERA bikoitx (Mendukiloko leizeak)  
Sara Baleztena  
M<sup>o</sup> Jose Astiz  
Ana Bidegain  
Aitziber Maisterrrena (Lekaroz)  
Lupe Muxika (Lesaka)
- 2 SARRERA (Artic izotz jauregia)  
Adela Arlegi (Bera)

## ttipi saskia

Bidali SMSa **5767**ra TTIPI SASKIA eta zure IZEN-DEITURA idatziz

**JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE**

**2 SARRERA**

**2 SARRERA**

Zozketari parte hartzeko epasa: urtarrilaren 29a, 15ra, irabaztean izenak urtarrilaren 27ko saskiaren argitaratzean dira. Mazarren kostea 1,20€ (BET) gabe. Zure datuak ttipi-ttiparen fitxategiaren jordeko dira zure arduraren azpian diren eskaintzari berriz emateko. Zuzenketa edo deusbatapenari buru egiteko deitu 948 63 54 58ra.

## DESKONTUAK

Argazki argazkietan

**AYLA**  
argazkigintza fotografia  
%10 kamet argazkietan

**DATUCELAY**  
%10 Bateria eta amortiguadoretan

**Deñe**  
%10 leizeretan

**edurne**  
HAUR ARROFADENDA  
%5 30€tik gora, eskurari ord.

**ETXARTE**  
%10eko deskontua





PVC eta aluminio aroztegia

Neurrira egindako leihoak  
Diseinu eta modelo ezberdinak  
Banakako soluzioak  
Isolamendu termiko eta akustikoak  
Energia aurrezpenak

Ordoki industrialdea • ARIZKUN  
Tel. 948 453 259 • Fax. 948 453 423  
betikopvc@betikopvc.com  
www.betikopvc.com

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa salmenta eta instalazioa



OBRA BERRIETAN ETA BERRIKUNTZETAN ESPEZIALIZATUAK